

BATZGROUP

Informazio ez-finantzarioaren
egoera orria

ERANTZUKIZUN
KORPORATIBOAREN
TXOSTENA
2020

2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion BATZ S. Koop eta haren menpeko sozietateen (aurrerantzean, Taldea) Informazio Ez-finantzarioaren Egoera-orri Bateratua, Taldearen Kudeaketa Txosten Bateratuaren parte dena.

INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA-ORRIA

2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion BATZ S. Koop eta haren menpeko sozietateen (aurrerantzean, Taldea) Informazio Ez-finantzarioaren Egoera-orri Bateratua, Taldearen Kudeaketa Txosten Bateratuaren parte dena.

Dokumentu honek 2018ko abenduaren 28ko Informazio Ez-finantzarioari eta Dibertsitateari buruzko Legeak eskatutako informazioa jasotzen du eta honako hauek zehazten ditu: BATZ Group-eko arriskuen kudeaketaren eta negozio-ereduaren funtsezko alderdiak, iraunkortasun-planak, ingurumenari, gizarteari eta lanari buruzko gaiak, giza eskubideak errespetatzeko eta bultzatzeko politika, ustelkeria eta eroskeriaren prebentzioarekin zerikusia duten gaiak, eta gizartearekiko eta interes-taldeekiko harremanaren kudeaketa.

Horrez gain, dokumentuak honako alderdiak barne hartzen ditu: Taldearen negozio-ereduaren laburpen bat, aurreko kontuei eta hartutako neurriei buruzko politiken deskribapena, politika horien emaitzak, Taldearen jarduerari lotutako eta gai horiekin zerikusia duten arrisku nagusiak, arrisku horien kudeaketa eta emaitza ez-finantzarioen funtsezko adierazleak.

Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria Global Reporting Initiative nazioarteko estandarraren bertsio Esentzialaren eta haren printzipio guztien arabera idatzi da, 2020ko Informazio Ez-finantzarioari buruzko Legeak gomendatutako jakinarazpen-esparrua. Gainera, Albacus S.L. enpresa independenteak egiaztatu du

ÍNDICE

1. GURE NEGOZIO EREDUA	4
1. 1. Nor gara	4
1. 2. Antolaketa-egitura 2020	6
1. 3. Gure erronkak	8
1. 4. Nola egiten dugun	9
1. 5. Proposamen jasagarria	16
2. POLITIKAK	17
2. 1. Politiken deskribapena	17
2. 2. Politiken emaitzak	18
3. ARRISKUAK EPE LABUR, ERTAIN ETA LUZERA	20
4. FUNTSEZKO ADIERAZLEAK, KPI-AK.	21
4. 1. KPI-ak	21
4. 2. Materialetatea	21
4. 3. Gure interes taldeak	22
5. INGURUMEN GAIK	23
5. 1. Kutsadura, gure ingurumen-inpaktua	24
5. 2. Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzio eta kudeaketa	26
5. 3. Baliabideen erabilera jasagarria	27
5. 4. Aldaketa klimatikoa	28
5. 5. Biodibertsitatearen babesa	29
6. GIZARTEARI ETA LANGILEEI BURUZKO GAIK	30
6. 1. Enplegua	32
6. 2. Lanaren antolakuntza	34
6. 3. Laneko osasun eta segurtasuna	34
6. 4. Gizarte- harremanak	36
6. 5. Prestakuntza	37
6. 6. Desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsala	38
6. 7. Berdintasuna eta aniztasuna	38
7. GIZA ESKUBIDEAK	40
8. USTELKERIA ETA EROSKERIA	43
9. GIZARTEA	45
9. 1. Garapen jasagarriarekin enpresak daukan konpromisoa	45
9. 2. Azpikontratazioa eta hornitzaileak	47
9. 3. Kontsumitzaileak	49
9. 4. Informazio fiskala	49
10. INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN ETA DIBERTSITATEAREN LEGEAREN BETETZE-TRAZABILITATEA	50
11. KANPO EGIAZTAPENA	56

1. GURE NEGOZIO EREDU

1 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

1.1 NOR GARA

BATZ gara, automobilgintzaren sektorerako produktuen eta zerbitzuen hornitzaile globala. 1963an sortu ginen eta lgorren (Bizkaia) dugu egoitza. Gaur egun, industria-talde sendo batetan bilakatura gara, gure profesionalen konpromisoari eta bezeroarekiko orientazioari esker.


Gure bezeroekin batera eboluzionatzen eta hazten ari gara, hasierako fasetik soluzio berritzaileen horniduran inplikatur. Segurtasun-, arintze- eta ergonomia-ezaugarriak dituzten produktuen diseinuan eta fabrikazioan jartzen dugu arreta, mugikortasunaren sektoreko joera nagusiekin guztiz bat datozen mugikortasun efizienteagoa eta jasangarriagoa ahalbidetzen baitute.

BATZ Group 1.300 profesional inguruk osatzen dugu, eta 11 ekoizpen-planta eta bulego ditugu mundu osoan zehar banatuta. Horri esker, gure bezeroei beren egungo eta etorkizuneko erronketan lagun diezaikegu, dauden tokian daudela.

Gure nostasuna

BATZ Arratiako bailaran, Bizkaian, kokatutako kooperatiba bat da, nazioarteko proiektzioa duena eta, mende erdi baino gehiagoz, hedapena eta izaera globala bere ingurunearekiko errotze eta konpromisoarekin ederki bateratzen jakin duena.

Naturally global



BATZGROUP

Gure misioa. Zer gara

BATZ automobilgintzarako premium produktu eta zerbitzuen mundu-mailako hornitzailea da. Balio erantsi handiko proposamen berritzaileaz eta bezeroekiko konpromiso pertsonala oinarri, modu iraunkor eta errentagarrian hazten ari gara trebakuntza, teknologia eta serieko fabrikazioa funtsezkoak diren industrietan.

Gure ikuspegia. Zer izan nahi dugu

Automobilgintzako premium hornitzaile gisa gure bezeroen arrakastari lagundu, eta, aldi berean, gure inguruneko garapen sozioekonomikoari ekarpena egin.

GURE NEGOZIOA

Automobilgintzaren sektorean garatzen dugu gure jarduera, zehazki ekoizpen seriatuaren eta ekipamendu-ondasunen arloetan.

Gure profesionalek esperientzia handia dute material eta prozesu berrien bidez konposite-egitura arinak diseinatzeko eta fabrikatzeko, baita osagai aerodinamiko aktiboak ere; honek, gure kualifikazioa eta aintzatespena kontrol-sistema mekaniko eta mekatronikoen diseinuan eta fabrikazioarekin batera, lehen mailako hornitzaile bihurtzen gaitu automobilen fabrikatzaile nagusientzat.

Gainera, material aurreratu berriak ezartzeko irtenbideak garatzen ditugu, altzairu eta aluminio-mota ugari konformazio-prozesuak hobetuz, bai beroan bai hotzean, eta zerbitzu integral bat eskaintzen dugu, produktuaren diseinu kontzeptualetik hasi eta doikuntzaraino.

TOOLING



- Ibilgailuak konformatzeko ekipamendu-ondasunak diseinatu, fabrikatu eta doitzen ditugu.
- Kooperatibaren jatorrizko negozioa izanik, konformazio-teknologia ezberdinei buruzko ezaguera eta esperientzia baliatuta, ibilgailuetako materialak berritzen lan egiten dugu, gaur egun, arinak eta seguruak direnak.


AUTOMOTIVE SYSTEMS



- 30 urtez geroztik, automobilgintzako eraikitzaile nagusientzako produktu sorta zabala diseinatu eta ekoizten dugu.
- Gehienak, garapen-ingeniaritzako produktuak dira, funtsezko eginkizun hauekin:
 - Egitura arintzea, konpositeen teknologiak oinarri hartuta.
 - Eraginkortasun aerodinamikoko funtzioak, emisioak murrizteko.
 - Mekatronika.

1.2 ANTOLAKETA-EGITURA 2020

BATZ Groupek printzipio kooperatiboetan oinarritutako enpresa-ereduaren alde egin du, konpainiaren balio bereizle gisa. Jarduteko printzipio horiek korporazio-esparruan islatzen dira, taldearen kudeaketaren nortasun-ezaugarri batzuen bidez. Ezaugarri horiek negozio bakoitzaren autonomia eta erantzukizuna arau komun batzuk ezartzearekin eta erabaki partekatuak hartzearekin uztartzen dituzte. Gure antolaketa-eredua, funtsean, arestian deskribatu negozio-unitateetan egituratuta dago, negozioaren, produktuaren, prozesuen eta proiektu estrategikoen garapenean oinarritzen direnak, eta sozietate-partaidetzaren eskema hau du:




Era berean, BATZ Groupek bere sozietate- eta negozio-egiturari egokitutako zuzendaritza-organoak ditu. Horien bitartez, konpainiaren funtsezko harremanak eta erabaki estrategikoak batera ditzake, hurrengo organigramak erakusten duen moduan.

2020an, BATZ Groupen antolaketa-egitura berria jarri zen martxan. Automobilgintzako merkatu global baterako erakundea, integrazio- eta zeharkakotasun-maila handieneko taldearen ideia indartzeko. Egitura hori arlo korporatiboen gainean egituratzen da, Talde Zuzendaritzaren eta negozio-jardueraren arteko hurbiltasuna eta kohesioa bultzatzen du, hala nola sail desberdinen artekoa, bezeroarenganako orientazio nabarmenarekin, hurrengo organigramak erakusten duen bezala.



1.2 ANTOLAKETA-EGITURA 2020



1.3 GURE ERRONKAK

Automobilgintzaren joera berriak, hala nola ibilgailuaren digitalizazioa, erabilera partekatua eta elektrifikazioa, industria horren egungo bilakaera baldintzatzen eta agertoki berriak sorrarazten ari dira, hasiera batean ezezagunak izan daitezkeen agertokiak, hain zuzen. Halaber, sektore hain orokor batean lan egiten dugun aldetik, oso adi egon behar dugu nazioarteko mugimendu ekonomiko eta politikoetara; izan ere, kanbio-tasak edo lehengaien prezioa baldintzatu edo protekzionismo handiagoa eragin dezakete

EZAGUTZEN DUGUN SEKTORE BATEN ALDAKETA



Kotxearen erabilera berriak



Marko arautzailea eztabaidan



Bat-bateko aktore berriak: Apple, Google, Uber...



OEM arteko aliantzak




Testuinguru geopolitikoa zalantzarria

Baina, zalantzarik gabe, 2020. urtea betiko izango dugu gogoan, azken hamarkadetako historian osasun-krisi handienetakoa izan dugulako mundu osoan, koronabirusak eragina. Pandemiak aldaketak azkartu ditu gure sektorean, eta lehentasunezko gaia da enpresen kudeaketan, bai eta ziurgabetasun-iturri ere merkatuaren, negozio-ereduen, eta nagusi diren ekonomia- eta gizarte-ereduen etorkizunari dagokionez.

Hala, ibilgailuen salmenta eta ekoizpena, pandemia-garaian, merkatu guztietan murriztu zen erabat; 2020. urtearen amaieran, salmentak % 14 eta ekoizpena % 16 gutxiago ziren. Egoerarik onenean, eta Forecast LMCA enpresaren arabera, 2019ko kopuruak ez dira 2022. urte amaierara arte errepikatuko.

2021 LV output recovery : 86.4mn (+16%)



Iturria: LMC Automotive.


Gure kasuan, eta jarduera dibertsifikatuta dugunez serie-ekoizpenaren eta ekipo-ondasunen alorretan, krisiaren eragina desberdina izan da unearen arabera. Hasierako hilabeteak zailak izan ziren, eta ekoizpena geratu egin zen automobilgintza-sistemen negozioan, baita, era berean, OEMen lantegiak itxi egin zirelako ere; gero, jarduerari berriro ekin, eta urtea ia-ia COVIDaren aurreko erritmoan bukatu genuen, erakartze-maila onarekin. Trokelgintzan, ordea, osasun-krisiak eragin berezia izan du. Krisia hasi aurreko hilabeteetan ere jarduera murriztua zegoen, ibilgailu-merkaturatze berri urriago zegoelako. Jarduera, etorkizun hurbil-hurbilean, murriztu egingo da estrukturalki, eta, ia seguru, krisi aurreko merkaturatze-maiztasuna 2023an gertatuko da berriro.

Hala eta guztiz ere, sektorearen egokitzapen- eta erresilientzia-gaitasunak, eta Europak, gobernuek eta sektoreko elkarteek sustaturiko pizgarri eta planek,aldi berean eskaria bultzatzen dezaketenean, aukera ona emango digute gure industria etorkizunari begira kokatzeko, baita lehiakortasuna eta jasagarritasuna gureganatzeko ere.

1.4 NOLA EGITEN DUGUN

1.4.1 Dibertsifikazioa, gure bazkideen garapena bultzatzeko eta balioa sortzeko oinarria.

BATZ-en negozio-eredua dibertsifikazio geografikoan eta negozioaren, produktuaren eta bezeroen dibertsifikazioan oinarritzen da. Eredu horrek hazkunde iraunkorra bermatzen du, automobilgintza bezalako sektore dinamiko eta aldakorri aurre egin ahal izateko.




1.4.2 Helburuak eta estrategia

Mugikortasunaren sektorea une erabakigarri betean dago bere etorkizunari dagokionez. Elektrifikazioaren erronkari aurre egin behar izateaz gain, merkatuetan dagoen ziurgabetasunarekin eta mugikortasun-azturetan izaten ari diren aldaketekin batera, COVID-19ak eragindako krisiaren irismena, oraindik ezezaguna, hor dugu. Hori gutxi balitz bezala, urte hauetan ibilgailuen fabrikatzaileekiko harreman-paradigmak aldaketa ugari izan ditu, eta BATZek jakin du haietara egokitzen, kudeaketa-eredu aurreratuak ezarritz. Hori dela eta, posizionamendu eta estrategia argia izan beharra dugu, produktuak, prozesuak eta negozio-eredua bera egokitzea ahalbidetuko diguna, gure jasagarritasuna ziurtatuko badugu.

Bizi dugun ziurgabetasun-testuinguruak sektorearen erronka nagusiei begirako gure konpromisoa indartu baino ez du egiten, honako hau xede: **mugikortasun jasangarriagoari erantzun, gure eskaintza globala eta posizionamendu “glokala” sendotuz, produktu, teknologia eta bezero anitzeko ikuspegiari eutsita**. Hori guztia gure estrategiak eraldaketa honen abiaduretaraz egokitzeko gai izan gaitezen, alorraren arabera bizkorragoa edo motelagoa baita, balio diferentzialari dagokionez OEMen eskaria selektiboagoa delako.

Helburu hori lortzeko, zeharkako prozesuak zehaztu genituen, negozio-arlo guztiak modu integralean eta koordinatuan inplikatzeko dituztenak, enpresa osatzen duten engranajeek osotasun gisa funtziona dezaten. Zeharkako kudeaketa hori honetan oinarritzen da:




Berrikuntza, ziurgabetasunaren aurrean egokitzeko tresna.


Automobilgintzaren sektorean, aldaketa handiak jazotzen ari dira, adituen esanetan joan den mendearen hasierakoak bezain esanguratsuak, hots, errekuntza-motorra eta serie-ekoizpena agertu zirenean bezalakoak. Horren arrazoia da industria bera sakonki eraldatzen ari dela. Egun, MADE (mugikortasuna, autonomia, digitala eta elektrifikatua) sigla mundu-mailan hedatuta eta bateratuta dago, lehen zenbait fabrikatzailek CASE (konektatua, autonomia, partekatua eta elektrifikatua) edo, beste hurrenkera batekin, ACES erabiltzen zuten modu bertsuan.

Teknologiaren sozializazioak, jada eskuragarria eta fidagarria baita, automobilen erabilera berriak dakartza (ibilgailu partekatua, autonomoak, konektatua, digitala...). Beste alde batetik, klima-aldaketaren gaineko kezkak propultsio-sistema eta erregai berriak garatzera behartzen du; horretarako, baterien alorra nabarmentzen hasita dago, elementu egituratzaile gisa.

Hori guztia gero eta bizkorrago gertatzen ari da, emisioei dagokienez arau-esparru murriztaileagoari erantzuteko, eta hala aldaketa geopolitikoak nola OEMen arteko aliantzak dakartza berarekin, bai eta eragile berriak agertzea ere, tradizioz beren jarduera merkatu honetatik at garatu izan dutenak, hain zuzen ere. Irudi honek OEMen posizionamendu berria erakusten du, zehatz-mehatz.



Honek, berriz, mugikortasun berriaren inguruan sorturiko ekosistema berriaren konplexutasuna agertzen du.



Zentzu honetan, eta gure kasu zehatza da, **berrikuntzak testuinguru berri honi aurea hartzea eta bertara egokitzea ahalbidetu digu**. Batetik, ibilgailu efizienteago eta ingurumenarekiko adeitsuagoen eskariari erantzun diogu, bai material aurreratuen bai prozesuen bitartez ibilgailu arinagoa egiteko irtenbideen garapen eta fabrikaziora berariaz bideraturiko gure lan-ildoen bidez, hala nola ibilgailuen efizientziaren eta motorraren kudeaketa termikoaren hobekuntza dakarten aerodinamika aktiboko sistemak diseinatzera eta fabrikatzera bideraturikoei esker. Puntu honetan, nabarmendu beharra dago **arintzea** eta **aerodinamika aktiboa**, mugikortasun autonomoarekin eta propulsiio-sistema berrieekin batera, sektore honetan mundu-mailan jorratzen diren lau lehentasunak direla, ibilgailu arinago, ekologikoago eta seguruagoa lortzeko, funtsean.

Bestalde, **sistema mekatroniko** konplexuen garapena ardatz duen beste proiektu batean murgilduta gaude, ibilgailuen automatizazio eta digitalizazio gero eta handiagoari erantzutea xede. Aldi berean, **Smart Factory** kontzeptua inplementatzen ari gara gure instalazio guztietan, eta gure prozesuen estandarizazioa hobetzeko eta datuen prozesamenduan haien bilketa optimizatzeke eta prozesua bera hobetzeko balio izango diguten proiektuei heltzen, erabakiak denbora errealean hobeto hartu ahal izateko.

Hori guztia gure **driver nagusietan** ikusten da:



Baterako berrikuntzaren bidez balioa sortzen

BATZen, oso barneratuta dugu berritzea erronkei eraginkortasunez aurre egitea delako premisa. Gure berrikuntza- eta ekintzailatza-kultura eremu teknologiko hutsetik harago doa, eta gure balio-proposamen osora hedatu dugu. Urteak daramatzagu **elkarlaneko ingurunean aurrera egitearen alde lanean**, jomugan gure gaitasunak modu estrategikoan zabaltzea eta sendotzea izanik, unibertsitateak, zentro teknologikoak eta 'startup'-ak barne hartuko dituen ekosistema saretuz.

Azkenik, BATZ Group eragile aktiboa da bere berrikuntza- eta ekintzailatza-ekosistemaren barruan. Inguruneke hainbat eragilearekin etengabeko harremanean, aipatzekoa da etengabe parte hartzen dugula organo publiko-privatuek koordinatutako ikerketa-programetan.

ESKUALDE-MAILAKO PROGRAMAK

• MAT-EV (BATTERY HOUSING)

Proiektuak Hazitek Estrategikoa dirulaguntza du, SPRIk Industria-ikerketatzat jo zuen, eta Bikain jaso zuen ebaluazioan. Helburua da ibilgailu elektrikoaren baterietan aplikatzeko materialetan trebatzea, suaren kontrako erresistentziari, EMC pantaila-ezarpenari eta ezaugarri mekanikoei dagokienez OEM bakoitzari bere beharretara egokituriko konponbideak eskaini ahal izateko. Aurreikuspenaren arabera, programa 2021ean amaituko da.



• AEROSTRUK

AEROSTRUK egitasmoa, Hazitek Lehiakorra proiektua bera, 2021ean amaituko da. Xede du Front-End direlakoak eta AGS sistema bakarrean integratuko dituen produktu bat garatzeko aukera aztertzea. Era berean, IMC bidez ekoiztiko piezen portaera aurreikusteko aukera aztertzen da, kontuan hartuta ez dagoela haien benetako jokabidea zehazki islatzen duen "solverrik" (elementu finituen softwarea-FEM). Horregatik egiten ari gara lortutako emaitzak zuntz luzeko pelletekin, errazago aurreikus daitezkeenekin, alderatzeko azterketa.

ESTATU-MAILAKO PROGRAMAK

• NG-PED

NG-PED proiektuak, CDTI dirulaguntza duenak, etorkizuneko ibilgailuen, elektriko eta autonomoen, pedaletarako aurreikus daitezkeen eskakizunak ikertzen ditu. Nagusiki, gainerako balaztatze-sistemeekin konexio mekanikorik gabeko balazta-pedalaren kontzeptuan oinarritzen da, hau da, konexio elektronikokoan. Horrek "feel simulator" (balazta-pedala zapaltzeko sentsazioaren emuladorea) delakoa duten sistemak behar izatera eramaten gaitu, bai eta pedal erretraktila dutenak eta abar ere. Horrez gain, plastikoen injektatutako balazta-pedalak ekoiztiko dira, WIT teknologiarekin, zeinak berritasuna izango diren mundu-mailan. Aurreikusita dago programa 2021ean amaitzea; egun, plastikozko balazta-pedalaren prototipoa osatzen ari da.



• ALUTOOL

EGEF funtsekin finantzaturiko proiektu honen helburua da espezifikazio handiko aluminiozko piezen konformazioaren esparruan egungo eta etorkizuneko errealitateari erantzutea. Ildo horretatik, ALUTOOL egitasmoaren azpiko erronka nagusia da material berriak eta abangoardiako teknologia garatzea automobilgintzaren sektorerako aluminioaren konformazioan eragiten duten elementu nagusietan txertatzeko. Zehazki, automobilgintzarako aluminiozko piezak konformatzeko eta mozteko berariazko ezaugarriak dituzten trokelak garatuko dira, hala nola aluminiozko txapadun materialak, piezak hobeto konformatzeko ezaugarri optimizatuekin. Aldi berean, gainazal eta lubrifikatzaileen tratamendurako prozesu aurreratu berriak sortuko dira, automobilgintzarako aluminiozko piezak enbutitzeko eta mozteko eragiketarako berariazkoak.

EUROPA-MAILAKO PROGRAMAK


• FIBEREUSE

FIBEREUSE proiektua Horizon 2020 programa europarraren barruan dago, eta xede du zuntz-berrerabileraren atzeko Ekonomia Zirkularra ikertzea (gure kasuan, karbonozko zuntzak) eta bigarren bizitza ematea. Gainera, egitasmoan, pedal-euskarrietan norabide bakarreko (NB) zuntz jarraituen erabilera lantzen ari da. Egun, frogagailuen prototipoak proiektuan berreskuratutako materialekin ekoizteko fasean dago.



• AEROSTRUK

RIB-ON proiektuak material berriak aplikatzen ditu beroko estanzazio-troketan, osagai aeronautikoen fabrikaziora bideraturiko horietan. H2020 Clean Sky 2 egitasmoaren barruan, paradigma erabat berria dakar beroko estanzaziorako tresnak garatzeko jardunera, ohiko lan-altzairuen bestelako aukerak ikertuta. Hala, proiektuaren helburu orokorra da "estanzazio-matrize berritzailea garatzea eta fabrikatzea, ikuspegi modular/berriz konfiguragarrian eta kostu txikikoan oinarritua, kanpoko hegaleko errefortzu-ereduak arrakastaz ekoizteko, errendimendu handiko aluminio-aleazio berriak, matrize pertsonalizatutako altzairua eta estaldura-irtenbideak erabiliz".



Zein programatan parte hartzen ari garen gure webguneko (www.batz.com) Berrikuntza atalean ikus dezakezu; denak ageri dira bertan.

2020ko lan-ildoak

Garapen-proiektuez gain, zentzu hertsian, non BATZek epe ertain eta luzerako gaikuntza-erronkei heltzen dien, mundu-mailan hainbat teknologia-zentzorekin eta unibertsitatearekin lankidetzan, fabrikazio aurreratuko driverra bizkortzen dugu, 'startup' teknologikoekiko harremana sustatuz. Horretarako, aktiboki parte hartzen dugu, enpresa traktore gisara, BIND 4.0 ekimenean. Horri esker, nazioarteko irismena duten 'startup' teknologikoak erakartzeko programarako sarbidea dugu. Zehazki, 2020an, ekipoen geolokalizazio bidezko autentifikazio-sistema ezarri dugu, ziber eremuan segurtasun bikoitza izateko.

**AUTOMOTIVE
INNOVATION
SUMMIT**

BATZ Innovation Summit

2020ko urrian BATZ Innovation Summit-en bosgarren edizioa egin genuen. Aurten online formatuan, eta "berrikuntza aldaketa-garaian" topikoaren pean, etorkizuneko hiri-mugikortasunari buruz eztabaidatu zen hainbat eragileren eskutik, egungo ereduaren eraldatzeko ikuspegi intermodala emanez, mugikortasun eraginkorrako, jasangarriago eta seguruago baterantz.

Saioa osorik ikusteko aukera dago gure webguneko BATZ News atalean www.batz.com

Erakunde osorako bikaintasun-eredurantz eboluzionatzen: BATZ Manufacturing Systemetik BATZ Management Systemera

2020. urtean, aurrera egin genuen erakunde osorako etengabeko hobekuntzarako eredu bakarraren garapenean: BATZ Management System (BMS). Orain arte, lantegietako industria-eremuari oso lotua egon da, baina orain ikuspegi integralagoa du eta BATZ Groupeko esparru guztietara hedatu da, gure bezeroekin egiten dugun merkataritza-kudeaketatik gure hornitzaileen garapeneraino.

Eredu honen hedapenak Bikaintasuna zutabearen barruko ezagutza-bloke berrietan aurrera egitea dakar berarekin, talde-mailako hobekuntza disruptiboari eusteko, Digitalizazioari eta Industria 4.Ori, kasurako.

Hala, nabarmendu beharra dago Zuzendaritza oso inplikaturik dagoela prozesu honetan. Horren erakusgarri, estrategiaren hedapenaren inplementazioa bai talde-batzordean bai eragiketa-arloetan, **Kaizen liderrak** zutabeko estandarren arabera.

Bikaintasuna lanean arloan, Kata proiektua aipa dezakegu, zeina barne- zein kanpo-mailako gure fluxu logistikoak optimizatzeko den. Era berean, eta fluxu-kudeaketaren lan-eremu honetan bertan kokatua, nabarmendu beharra dago Kunshaneko lantegian lay out berria ezarri dugula, IMC teknologiarako sorturiko estandarrak errespetatuta.

2020an, halaber, aurrerapauso garrantzitsuak egin genituen **Kaizen egunerokoa** zutabearen finkapenean, 5S fisiko eta digitalak lortzeko bidean aurrera eginda. Horren erakusgarri, Txekiako eta Mexikoko lantegietan eginiko Kamishibai auditoretzetan lorturiko emaitzen hobekuntza.

Azkenik, **Kaizen euskarria** zutabearen barruan, BMS metodologiaren gaineko prestakuntzarekin eta aditzera emateko lanarekin jarraitu dugu; horrela, metodologia horiek errazago ulertzen eta barneratzen ari dira, baita beren helburuak ere, eta, ondorioz, taldeen inplikazioa handiagoa da. Ildo horretatik, eta Igorren dugun lantegiko lantaldearen parte-hartzeari esker, joan den urtean TPM deritzon metodologia ezarri zen, ekoizpena eta mantentze-lana kudeatzeko. Horrela, bi digitu hobetu dugu eraginkortasuna ildo pilotuan. Nabarmendu behar da, orobat, jakintza-bloke berriak abiatu ditugula hornikuntza-katean Adimen Artifizialaren aplikazioan edo kalitate-arazoak antzemateko ikusmen artifizialaren aplikazioan.

Garapen digitala, gure enpresa-kudeaketarako giltzarria

Digitalizazioa eta jasangarritasuna. Zeharkako bi driver estrategiko hauek zehaztu dira 2020an egindako hausnarketa estrategikoaren ostean, eta elementu bultzatzaileak izango dira 2024ko eraldaketarako gure agendan. Batean eta bestean, BATZ Groupek aktiboki jokatu nahi duen merkatuetan eta gizarte- eta enpresa-ingurunean izaniko aldaketaren funtsa jasotzen da. Eraldaketa-eragileak izanik, datorren hamarraldian modu erabakigarrian lagunduko digute BATZ Groupen Xedea betetzen.

Zehazki, **Digitalizazio Driverretik (SMART)** Garapen Digitaleko 18 proiektu ere sortzen dira, 2021-2024 epealdirako Ardatz Estrategiko guztien euskarriak: smart working, datuaren gobernu, gobernantza digitala, zibersegurtasuna, gizarte digitala, etab.

Garapen digital honen esparrua eta estandarrak zehazteko lanaz gain, osasun-krisiak paper garrantzitsua izan zuen gure agendan. Oso denbora gutxian, eta garapen digitaleko taldeak egindako lan apartari esker, BATZ Groupeko profesional guztiek beren eguneroko lana urrunetik egiten jarraitu ahal izateko beharrezko bitarteko guztiak izan zituzten eskura; hilabeterik zailenetan, zerbitzu-maila egokiari eutsi zioten, eta, batez ere, zibersegurtasunez.

2020ko beste lan-ildo batzuk

Pertsonen geolokalizazioan oinarrituriko zibersegurtasun-neurrien aplikazioa, aktiboak eta zerbitzuak online monitorizatzeko moduluen ezarpena, zibersegurtasunari buruzko prestakuntza.

Strategic Marketing Management System

Strategic Marketing Management System (SMMS) deritzogunak biltzen dituen jarraibide, prozesu eta tresnak etorkizuneko erronkak zehaztera, gehiago ikus gaitzaten lortzera eta, ondorioz, gure jasangarritasuna bermatzera **bideratuta daude**. Marketin estrategikoa kudeatzeko sistemaren zehaztapen hau funtsezko tresna bihurtu da, eta BATZek epe luze, ertain eta motzera dituen estrategiak zorrotz, txukun eta argi jorratzea ahalbidetzen digu.

Gure SMMS elkarloturiko lau ardatzen inguruan egituratua dago, grafiko honetan ikus daitekeen bezala:



Zentzu horretan, eta koronabirus berriaren agerpenak areagotutako ziurgabetasun-ingurune honetan, egungoaren moduko egoerei aurrea hartzea bereziki garrantzitsua bihurtu da. Bada, SMMSak hausnartzen, erabakiak hartzen eta BATZen etorkizuneko erronkak zehazten laguntzeko tresnak ematen dizkigu. Zehazki, zaintza teknologikoaz eta adimen lehiakorraz ari gara; izan ere, eremu honetan zehazten dira informazio- eta iturri-motak, negozioaren berezko inputen eskuragarritasuna, banaketa eta erabilera, eta horiei beste elementu batzuk gehitu zitzaizkien, osasuna, gizarte-egonkortasuna eta abar, itxuraz ez zutenak zuzeneko eraginik gure sektorean.

2020a funtsezkoa izan da SMMS proiektua finkatu ahal izateko eta, aldi berean, erakunde osoari haren ikuspegi orokor eta gertukoa ematen saiatzeko. Hausnarketa Estrategikoa egiteko urtea izanik, eta jakitun zein diren gure ekosistema osoari eragiten dioten barne- zein kanpo-faktoreak, aurrerapausoa egin dugu Globaldata tresnaren bidez lehen eskuko informazioa eskuratuz eta Taldearen marketin-estrategia erakunde osoan zeharka zabaltzen, ezartzen, kudeatzen eta jakinarazten lagunduko digun CRM+ bat ezartzearen aldeko apustua eginez.

1.5 PROPOSAMEN JASANGARRIA

BATZen beti eduki dugu oso argi gure aktibitateak egungo gizartean eragina izan behar duela, baina, era berean, datozen belaunaldientzako ondarea utzi behar dugula ere bai, gure sortzaileek egin zuten bezala. Eta, hori printzipio sendo eta partekatu batzuetan oinarritutako negozio eredu bati esker posible izan da, misio argi batekin: soluzio berritzaile eta bezeroarekiko konpromisoari esker, modu etengabe eta errentagarri batetan haztea, gure inguruaren garapen ekonomiko eta sozialari begirik kendu gabe, gure Erantzukizun sozial korporatibo politikan adierazten dugun moduan.

BATZeko erantzukizun sozial korporatiboaren oinarriak bost ardatz ditu

- Gobernu korporatibo etikoa***
- Pertsonen garapena***
- Gizartean integrazioa***
- Hornitzaileen garapena***
- Ingurumen-erantzukizuna***



2. POLITIKAK

2.1 POLITIKEN DESKRIBAPENA

2 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

BATZ Groupek hainbat politika korporatibo ditu. Horietan, gure jarduera arautzen duten printzipioak eta gidalerroak garatzen dira, eta gure kudeaketan eta gobernuan ESKren aintzatespena eta integrazioa adierazten dute; aldi berean, hainbat solaskiderekin dugun harremana taxutzen dute, eta eragin negatiboa duen edozein arrisku identifikatzen, prebenitzen eta saihesten laguntzen digute.

BATZ Groupen ingurumen-, gizarte- eta goernu oneko politikak:

POLITIKAK	DESKRIBAPENA
Jokabide-kodea	BATZ osatzen duten pertsona guztien eta, ahal den heinean, hornitzaile, bazkide eta bezeroen jokaera arduratsua arautzeko prozedurak eta arauak biltzen dituen dokumentua.
ESK politika	BATZ Groupeko negozio-ereduan erantzukizun soziala integratzeko oinarrizko esparrua.
Jasangarritasun txostena	Erakundeak garapen iraunkorraren helburua betetzeko egin duen jarduerari buruzko dibulgazio-agiria
Ingurumen politika	Ingurumen-kudeaketa estrategikoarekin lotutako esparrua, ingurumen arloko helburuak ezartzen dituena.
LSO politika	Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan jarduteko printzipio orokorrak zehazten dituen esparrua
Tooling kalitate politika	Politika honen bitartez, trokeltzintza negozioak bere jarduera garatzeko gidalerroak ezartzen ditu (ikuspegia, misioa eta balioak) eta konpromisoa hartzen du horiek betetzeko eta aldizka berrikusteko beharrezko baliabideak eskaintzeko, bai eta egoki den parte guztien artean politika zabaldu eta haren ulermena bultzatzeko.
Automotive Systems kalitate politika	Politika honen bitartez, automobilgintza sistemen negozioak bere jarduera garatzeko gidalerroak ezartzen ditu (ikuspegia, misioa eta balioak) eta konpromisoa hartzen du horiek betetzeko eta aldizka berrikusteko beharrezko baliabideak eskaintzeko, bai eta egoki den parte guztien artean politika zabaldu eta haren ulermena bultzatzeko.
Sexu-jazarpena edo sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa	Protokolo honek BATZen gerta litezkeen sexu-jazarpeneko edo sexuagatiko jazarpeneko kasuak prebenitzeko prozedurak eta baliabideak jasotzen ditu.
Berdintasun plana	Dokumentu honek era ordenatuan jaso egiten ditu egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutako neurriak, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna bermatzeko eta sexuagatiko diskriminazioa ezabatzeko.
Hautaketa eta garapen politika	Politika honen helburua da BATZ Groupen menpeko enpresa guztiek pertsonak hautatzeko eta garatzeko prozesuetan aplikatu beharrezko funtsezko puntuak zehaztea, enpresaren misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin bat egiten duen profesional-taldea osatzeko.
Nazioarteko mugikortasun politika	BATZ Groupeko atzerriratze prozesuetako dimentsio ezberdinetan eragina duten puntuak biltzen dituen dokumentua. Dimentsio horiek ekonomikoak, profesionalak, psikologikoak, soziokulturalak eta familiakoak izan daitezke.
Komunikazio politika	Komunikazioaren kudeaketa integralerako erreferentzia-esparrua ezartzen eta zehazten duen dokumentua, barne hartuz helburuko publiko ezberdinak eta dagozkien komunikazio-kanalak.
Informazioaren segurtasuna kudeatzeko eskuliburua	BATZ Groupen jarduerari buruzko Informazioaren Segurtasunaren Sistema ezartzeko gidalerroak eta haren erantzukizunak eta autoritateak ezartzen dituen erreferentzia-esparrua.
Lana eta familia bateragarri egiteko politika	Baimen, eszedentzia edo lanaldi-murrizketei buruzko mekanismoak jasotzen dituen dokumentua.
Lanbideen mapa	Lanbideak eta horien deskribapena eta ordainsari-maila integratzen dituen esparrua.

2.2 POLITIKEN EMAITZAK

3 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Gure kudeaketa sistema

BATZ Groupen, gure kudeaketaren sendotasuna eta kalitatea ebaluatzen laguntzen diguten tresnak ditugu, eta, aldi berean, kudeaketa-sistema hauek zehazteko eta mantentzeko jarraibideak ezartzen dituzten nazioarteko estandar nagusien arabera egiaztatzen dute.

Kudeaketa-sistema bakoitza antolaketa-egiturak, erantzukizunek, jarduketa-prozedurek eta beharrezko prozesu nahiz baliabideek osatzen dute, haren eraginkortasuna etengabe hobe dadin. Horiek guztiek nazioarteko arauak bat egiteko egitura bera dute, ISOk zehaztua: goi-mailako egitura (HLS). Hala, eskakizunak erakundearen plangintzarekiko eta prozesuen kudeaketarekiko koherentziaz zehazten dira. Onetsitako arau bakoitzaren eskakizun guztiak: **ISO 9001, IATF 16949, ISO 14001, ISO 45001, ISO 9100, ISO 27001**; hala nola bezeroaren eskakizun espezifikoak edo lege-arauditik eratorriak ebaluatu eta gure kudeaketa-sistemak osatzen dituzten prozesuetan jasotzen dira.

Alde batetik, gure jarduna neurtzeko sistema bat dugu intranet korporatiboan; hileroko eguneratzen du arloko, lantegiko edo helburuaren beraren arduradun bakoitzak. Adierazletan banakaturiko agente-aula bat, adierazleon aldizkako jarraipena egitea eta ezarritako neurrietan antzemandako edozein desbideratze ia denbora errealean zuzentzea ahalbidetzen diguna.

Bestetik, kudeaketa-sistema bakoitzak bere eraginkortasunari eta efizientziari eustea ziurtatzen du, etengabeko hobekuntza inplementatuz eta prozesuetan oinarrituriko ikuspegia izanez. Ekintza horien jarraipen eta ebaluazioa prozesu bakoitzaren bilera operatiboetan egiten da, baita batzorde operatibo eta estrategikoetan ere, taldekoetan zein negozio eta lantegietakoetan, gutxienez hileroko.



Hala lantegi bakoitzean aplikagarri diren kudeaketa-sistemak nola lantegiek eskuraturiko ziurtagiriak BATZen webgunean daude eskuragarri: www.batz.com.

Gure bezeroen estrategiarekin bat egiten

2020an ere, balorazio bikainak lortu genituen jasagarritasunari buruzko gure bezeroen galdetegietan, non ingurumen-gaietan, lan-jardunbideetan, kudeaketa etikoan, giza eskubideetan eta abarretan adierazle nagusiak balioesten diren. % 84ko batezbestekoa NQC plataforman (Volkswagen, BMW, Toyota, Volvo,...) eta Bronze recognition ECOVadis-en (Groupe PSA, Renault). Horrek ere bezeroek gure proiektuaz eta kudeaketa arduratsuaz duten pertzepzioa balioesten du.



GM saria BATZ Mexicana, 2019an egindako lanagatik: aintzatespen hori hornitzaileei ematen zaie, aurreko ekitaldian fabrikatzailearen aurreikuspenak bete ez ezik, gainditu ere egin dituztenean, errendimenduari eta kalitateari dagokienez, eta GM erakunde osoaren laguntza jaso dutenean hainbat arlotan.

Quality Excellence Award, Volvo Cars-ek BATZ Zamudiori bigarren urtez jarraian emana. Fabrikatzaileak bere aurreikuspenak bete eta are gainditu dituzten hornitzaileei emate die; gure kasuan, arintze-arloan eskaintzen ditugun irtenbideengatik.

3. ARRISKUAK EPE LABUR, ERTAIN ETA LUZERA


4 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Gaur egun, VUCA mundu bati aurre egin behar diogu, non malgutasuna, dimentsionamendua eta gaitasun teknologikoa garrantzitsuak diren. Urte hauetan, gainera, ibilgailu-fabrikatzaileekiko harreman-ereduak aldaketa handiak izan ditu, eta horietara egokitu behar izan dugu, kudeaketa-eredu aurreratuak harturik. Ildo horretan, eta gure kasua denez, erakundearen esparru guztietara hedatutako berrikuntzak sortzen zaizkigun agertoki berrietara egokitzeko aukera ematen digu. Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da estrategia eta posizionamendu definitua eta partekatua izatea, ingurune horretara egokitzeko eta, horrela, gure iraunkortasuna ziurtatzeko. Eta horrek digitalizazioa, efizientzia eta lehiakortasuna dakartza berarekin, zalantzarik gabe.

BATZen baditugu arriskuak zein hobetzeko aukerak identifikatzeko tresnak eta metodologiak, bai erakundetik kanpo bai barruan. SMMS da horietako bat (aurreko atalean deskribatua), epe luze, ertain eta laburreko estrategiei zorrotasuna, ordena eta argitasuna emateko aukera ematen diguna.

BATZ Groupen, aurre egin behar diegun arrisku nagusiak eta arrisku horiei epe luzean ekiteko era ez dira nabarmen aldatu aurreko ekitaldiekin alderatuta, eta gure sektoreko joerekin zuzenean lotuta daude (txosten honen 3. eta 4. ataletan daude deskribatuta). Gure merkatuko joera horiei “talentuaren aldeko gerra” gehitu behar zaie, zeinaren kudeaketa-ikuspegia 6. atalean (gai sozialak eta langileei buruzkoak) eta 9.ean (Gizartea) deskribatu dugun.

Hala ere, COVID-19aren agerpenak paradigma-aldaketa ere ekarri du gure sektorean, eta, beraz, agertoki berrietan lan egin beharra eta epe ertain zein laburrean etorkizuneko eredu ekonomikoan finkatzen diren aldaketak onartuz joatea ekarri du. “Errealitate berri” hori indarrez sartu zen gure erakundearen 2021-2024 epealdirako hausnarketa estrategikoaren prozesu betean, eta, ondorioz, faktore erabakigarri berriak identifikatu eta txertatu genituen haren formulazioan, merkatuari, bertan parte hartzen duten enpresei eta, hortaz, BATZ Groupen datozen urteotako bilakaerari begira.



Roland
Berger

Testuinguru berri honetan, parte hartzen dugun merkatuetan gure posizioa indartzearen aldeko apustua egiten dugu, hala nola diru-sarreretan jasagarritasuna eta mendekotasunaren murrizketa berrmatuko dituen produktu-aukerari eustearen aldekoa, bai eta gure footprinta zabaltzearen aldekoa ere, partenariatu bidez, funtsezko gaia etorkizun hurbilean eta egoera honetan (non ziurgabetasuna, inbertsio handiak eta plataforma gero eta partekatuagoak dauden) eskalako eta irismen handiko ekonomiak lortzeko.

Gainera, gure balio-katea modu iraunkorrean finkatzen ari gara, eraginkortasuna eta fidagarritasuna uztarturik. Halaber, hurbileko hornitzaile estrategikoen kate baten garapenean oinarritzen ari gara, COVID-19aren krisiaren ondoren bizkortu egin den paradigma-aldaketari erantzuna ematearren, balio-katearen desgloalizaziorantz egiteko, non alderdi geopolitiko eta ekonomikoek eragin txikiagoa duten.

4. FUNTSEZKO ADIERAZLEAK, KPI-AK.

5 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

4.1 KPI-AK

Txosten hau GRI estandarren arabera egin da, eta gure erakundeko gai materialen eta horiekin lotutako eraginen irudi osoa eta orekatua ematen du, baita horien kudeaketarena ere.

4.2 MATERIALETATEA

BATZ Groupek jasagarritasun eta kudeaketa gardenaren printzipioen arabera jarduten du, epe luzerako antolaketa iraunkorra lortzeko faktore garrantzitsuak kontuan hartuta. Modu horretan, interes-talde nagusien interesak aintzat hartu eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-inpaktu nagusiak zehazten ditu.

BATZ Groupek jasagarritasuna bermatzeko, ezinbestekoa du interes-taldeen beharrak asetzea eta, aldi berean, negozioa garatzea eta balioa sortzea.



BATZ Groupen iraunkortasunaren jarduera-esparrua honako kanpo eta barne ardatzak hartzen ditu oinarri:

Barnekoa

- BATZ Groupeko misioa, ikuspegia eta balioak
- Arriskuen kudeaketa eta politika: pertsonak, ingurunearekiko konpromisoa, administrazio publikoak eta ustelkeriaren kontrako politikak, bezeroak eta hornitzaileak, informazioaren kudeaketa
- Gure Jokabide-kodea


Kanpoko

- Iraunkortasun-estandar nagusiak
- Automobilgintza sektoreko fabrikatzaileen iraunkortasuna
- Enpresa Praktika Onenen Benchmarking-a, Gizarte-erantzukizun korporatiboaren eremuan

BATZ Groupen, alderdi material garrantzitsuenak identifikatu ditugu. Horretarako, interesaldearen kezka kontuan hartzen duten inpaktu-irizpideak eta kudeaketa aktibo bati lotutako alderdiak aintzat hartu ditugu, antolakundearentzat oso garrantzitsuak direlako.

Irizpide horien arabera, hainbat inpaktu material identifikatu ditugu, interes-taldeentzat eta negozioarentzat duten garrantziaren arabera ebaluatu eta lehenetsi direnak, jarraian azaltzen den moduan.

MATERIALITASUN-MATRIZEA



4.3 GURE INTERES TALDEAK

Gure misioa argia da: gure bezeroen arrakastan laguntzeko gaude hemen, gure inguruneke garapen sozioekonomikoan parte hartzen dugun bitartean. Eta hori guztia bakarrik gauza daiteke konfiantzaren, osotasunaren, lankidetzaren eta gardentasunaren bidez. Horrexegatik, guretzat funtsezkoa da gure interes-taldeekin ditugun harremanak zaintzea eta indartzea. Horretarako, hainbat komunikazio-kanal ofizial ditugu, haien bitartez elkarriketak ezartzeko eta horrela gure taldeen itxaropenak bete ahal izateko.

INTERES TALDEAK					
BARNEKOA		KANPOKOA			
GURE PERTSONAK	ORGANO SOZIALAK	BEZEROAK	HORNITZAILEAK	GIZARTEA ¹	ADMINISTRAZIOAK ETA ERAKUNDEAK ²
Kooperatibaren berezko komunikazio-kanalak	Kooperatibaren berezko komunikazio-kanalak	Webgunea	Webgunea	Webgunea	Webgunea
Intranet	Intranet	Harreman zuzena	Extranet	Sare sozialak	Sare sozialak
Newsletterra	Newsletterra	Tech days	Bilerak	Elkarrizketak eta prentsako artikulua	Elkarrizketak eta prentsako artikulua
Bilerak	Bilerak	Azokak eta ekitaldiak	Sare sozialak	Bilerak	Bilerak
Taulak	Taulak	Sare sozialak	Gure instalazioetara bisitak	Jardunaldiak, azokak eta ekitaldiak	Jardunaldiak, azokak eta ekitaldiak
Pantailak	Pantailak	Gure instalazioetara bisitak		Gure instalazioetara bisitak	Gure instalazioetara bisitak
Kanal etikoa	Kanal etikoa	Txostenak		Txostenak	Txostenak
Gogobetetze-inkestak	Gogobetetze-inkestak	Katalogoak			
Harrera plana	Harrera plana				

¹ Bame hartzen ditu gizarte zibila, Mondragon, elkarteak, toki-erakundeak, GKEk, unibertsitateak, prestakuntza-zentroak, zentro teknologikoak...
² Bame hartzen ditu administrazio publikoak, Mondragon, finantza-erakundeak, erakunde arautzaileak, finantzazio-erakunde publikoak...

5. INGURUMEN GAIAK

6 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

BATZen erabateko konpromisoa dugu ingurumena babestearekin eta hondakinen eta gure inguruaren errespetuzko kudeaketarekin. Gainera, balioa sortzearen aldeko apustua egiten dugu eta balizko ingurumen-eragina minimizatu, BATZ talde osoan eragina duen gure gizarte-erantzukizun korporatibo zein ingurumen-politikako printzipioetan ageri den bezala. Biak gure interés-taldeek kontsultatu ditzakete gure kanal korporatiboetan: intranet, extranet eta webgunean.



BATZGROUP

Política Ambiental

La alta Dirección de Batz Group establece su política de modo que se logren los resultados previstos según el sistema de gestión, facilitando los medios necesarios y comprometiéndose a:

La protección del medio ambiente, previniendo impactos ambientales adversos mediante la prevención de la contaminación, teniendo en cuenta las ubicaciones de cada una de las plantas del grupo.

Cumplimiento con los requisitos legales y otros que la organización suscriba, estableciendo su identificación, evaluación periódica y corrigiendo las no conformidades que pudieran surgir.


La mejora continua con el fin de apoyar y mejorar el desempeño ambiental.

Fomentar el espíritu de respeto hacia el medio ambiente y su compromiso de participación y colaboración en las actuaciones que en materia ambiental se adopten.

Mejorar el desempeño energético, apostando por el ahorro y la eficiencia energética para contribuir a la protección del medio ambiente y mejorar nuestra competitividad.

Esta política se alinea con la gestión ambiental estratégica y es el marco para establecer objetivos ambientales periódicamente.

Es comunicada internamente y además está disponible para todas las partes interesadas, queriendo transmitir y difundir nuestros compromisos especialmente a clientes y proveedores.



Ana Camacho | CEO BATZ Group
Septiembre 2017



Arlo horretan egiten ditugun jarduerak bat datoz Agenda 2030eko Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH); horiek ditugu abiapuntu ingurunean eta gizartean nola eragiten ari garen jakiteko eta Erakunde gisa ditugun erronkak finkatzeko. Gure betebeharra da jasagarritasuna, enpresa-talde gisa, ekonomia zirkularraren sustapenarekin eta klima-aldaketaren ondorioak murriztuko dituen energia-eredu baterako trantsizioarekin uztartzen jakitea.

Funtsezkoa da gure langileei ingurumen-hezkuntza ematea, arlo horretan treba eta sentsibiliza daitezen, pertsona bakoitzak bere ingurunean betetzen duen eginkizun “anplifikatzailea” inola ere ahaztu gabe. BATZ Groupen eragin-eremua gure ekoizpen-zentroetatik askoz harago hedatzen da. Horren guztiaren inguruan, aldizkako prestakuntza-saioak egiten dira, gure langileen profilari egokituak, ingurumen-gaitasuna hautemandako beharretara egokitzearen. Errealitate teknologiko berrietara egokitutako baliabideak ditugu, gure ingurumen-kanpainak hobeto zabaltzeko, informazio-pilulen moduan, Intraneten, webgune korporatiboaren, RSSren eta abarren bidez.

Era berean, arreta berezia jartzen dugu larrialdiak kudeatzeko moduan. Gertakari horiek, unean unekoak eta probabilitate txikikoak izan arren, jarduketa espezifikoak behar dituzte, eta guk simulazioak planteatzen ditugu gure erantzuteko gaitasuna ebaluatzeko. Horregatik, ingurumen-alderdien ebaluazio jarraitua egiten dugu, eragin negatiboak saihesteko asmoz, horrelakorik gertatu aurretik. Guk proportzionaltasunez jokatzeko dugu, prebentzio-printzipioaren arabera. BATZen ingurumen-helburuak bi jarraipen-mailatan ezartzen dira: Taldearen helburuak, batetik, eta instalazio bakoitzaren berezko helburuak, bestetik. Lehenengoak GRI estandarren arabera zehaztu dira, eta hilerok jakinarazi behar dira; horrek aukera ematen digu desbideratze esanguratsuak gertatu aurretik jarduteko. Goi Zuzendaritzak aztertzen du helburuen aurrerapena, eta horrek erakusten du inplikatura dagoela ezarritako helburuak lortzeko bidean.

Ingurumeneko finantza-bermeei eusten diegu gure aseguruak estaltzen dituzten polizen barruan, eta horrek baliabide ekonomiko nahikoak bermatzen dizkigu geure jardueraren ondoriozko balizko ingurumen-erantzukizunei aurre egiteko.

Gure ingurunearekiko konpromisoa, dena den, urrunetik dator. BATZen lehen ingurumen-politika 2001ean ezarri zen, eta ISO 14001 nazioarteko arauan oinarritutako kudeaketa-sistema bat abiarazteko esparru gisa balio izan zuen. Bi urte geroago, ziurtagiria eskuratu genuen litorreko lantegirako, non taldearen egoitza dagoen. Gerora, araua berriro ahala sistema egokituz joan gara, eta goi-mailako egitura hartu dugu, bai eta arriskuan oinarritutako ikuspegi berria ere, bizi-zikloaren ikuspegia barne.

Zuzendaritzak eskakizun gisa ezartzen du Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) mantentzea, hirugarren aldetik ziurtatua, oin berri bakoitzean edo instalazioen zabalkuntza bakoitzean. Harro diogu zentro batek ere ez duela galdu bere ziurtagiria lortu zuenetik.

2019an, kudeaketa-sistemen arteko integrazioaren hasiera ezarri zen. 2020. urtean, prozesua sendotu egin da, eta gaur egun ondo doa aurrera.

5.1 KUTSADURA, GURE INGURUMEN-INPAKTUA

7 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Erakunde orok sortzen ditu ingurumen-inpaktuak, eta, gure kasuan, kuantifikatu eta, aldi berean, estrategiak garatzen ditugu horrelakoak saihesteko edo minimizatzeke. BATZek giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta materialak ematen dizkio bere instalazio bakoitzari, ingurumen-legeria zein gure alderdi interesdunek hala eskatuta aplikagarri zaigun esparru horretako edozein araudi erabat betetzeko. Filosofia horrek planak ezartzera garamatza, non hondakinen eta isurien minimizazioa lehenetsi edo gure jasagarritasun energetikoa hobetzen diren.


ENERGIA-JARDUNA

Industria-erakundeetan eraginik handiena izan dezaketen alderdietako bat ekoizpen-jarduerak garatzeko beharrezko energia-eskaera handia da. BATZ Groupen, gure energia-iturri guztiak identifikatu eta haien kontsumoak hilerok kontrolatzen ditugu.

Energia-iturriak: elektrikoa eta erregai fosilak. Azken horiek gas naturala, diesela, gasolina eta nafta biltzen dituzte. Honako grafiko honetan, kontsumitutako energiaren banaketa ageri da:



Consumo energético MWh



Gas naturala gure langileen konfort termikoa mantentzera bideratzen da, berokuntzarako soilik, eta gure hiru instalaziotan energia-iturri aukeratu dugu. Kontsumo absolutua apur bat handitu dugu (2.271 MWh, 2018an baino % 12,76 gehiago), arrazoi klimatologikoak direla eta.

Gainera, instalazioetako batek berokuntza indartzea erabaki du, **diesela** baliatuz, eta, ondorioz, kontsumoa % 536 handitu da 2018. urtearekin alderatuta. Guztira, 2020an, erregai horren 21,69 m³ kontsumitu dugu.

Gainerako erregai fosilak ibilgailuen flotarako erabiltzen dira, bai gure instalazioetan zamak mugitzeko (orga jasotzaileak) bai enpresak norberaren erabilerarako emandakoak; balioa ez da bereziki esanguratsua (2790 litro).

25.421 MWh kontsumituta, **elektrizitatea** dugu energia-iturri nagusia; halere, kontsumo absolutua % 4,25 murriztu da 2018. urteari dagokionez. Edonola ere, kontsumitutako energia elektrikoaren eta lan egindako orduen arteko ratioari erreparatuz gero, kontsumoa % 6,37 handitu dugu aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Izan ere, lan egindako orduak murriztu egin badira ere, pandemiaren ondorioz, gure instalazioetako batzuek oinarritzko kontsumoei eutsi diete.


ENERGIA-INTENTSITATEA (kWh/m€)		
2018	2019	2020
144,89	144,01	159,68

2020an, **energia-intentsitatea** kontzeptua sartu zen instalazio bakoitzaren hileko txostenean. Adierazle horrek energia-eraginkortasunari buruzko informazioa ematen digu, ekoizpen-zentro bakoitzaren ekonomian oinarrituta. Bestalde, Eraginkortasun Energetikoa Hobetzeko Planekin jarraitu genuen, jada ondo probatuta dauden lan-ildoei eutsita (hala nola, ohiko argiztapen-teknologiaren ordez Led erabiltzea, aire konprimatuko zirkuituetako auditoretzak ezartzea ihesak ekiditeko, instalazioak programatzea beharrezkoak ez direnean itzalita egon daitezen, etab.).

Euskal Autonomia Erkidegoko gure instalazioetan kontsumitutako elektrizitatearen jatorriari erreparatuta, ikus dezakegu energia berriztagarrien proportzioa handitu egin dela azken urtean, batez beste % 49,01era iritsi arte. Horrek esan nahi du energia berriztagarrien bidez sortutako 12.886 MWh kontsumitu ditugula.

EMISIO ATMOSFERIKOAK

Gure **kutsatzaile atmosferiko** nagusiak bi bloke nagusitan multzokatzen dira: besteak beste, soldadura- eta mekanizazio-prozesuei dagozkienak, Co, NOx eta partikulekin lotuta daudenak; eta konposatu organiko lurrunak (KOL) dituzten substantzia kimikoak erabiltzearen ondoriozkoak.



Hainbat instalazio hasiak dira beren erosketa-irizpideetan KOL isurketarik gabeko edo isurketa txikiko produktu kimikoak lehenesten. Substantzia horiek, giza osasunerako kaltegarriak izateaz gain, ekosistema naturaletan eragin kaltegarriak dituzte, organismoen jarduera fotosintetikoan eta metabolismoan eragina dute, eta smog fotokimikoa eragiten dute.

Instalazio bakoitzak bere isuri atmosferikoak kontrolatu eta herrialde bakoitzean aplikatzekoa den indarreko legeriak ezarritako emisio-mugak betetzen ditu. Gure instalazio guztiek % 100ean betetzen dute alderdi hori.

Gainera, **ingurumeneko soinu-presio** mailak aldizka kontrolatzen dira, onetsitako erakundeekin egiten diren neurketa eta txosten independenteen bidez. Esan dezakegu 2020an instalazioek aurkezturiko txostenak egokitzat jo direla.

KARBONO-AZTARNA

BATZ Groupek jasagarritasuna bere estrategian txertatuta du, eta GIHeKin bat eginda dago. Hori dela eta, erakundearen karbono-aztarna ezagutzeko bideari ekin diogu, gure energia-kontsumoak eragiten duen inpaktua islatzeaz gain. Horixe da lehen urratsa etorkizunean erakundearen deskarbonizazioa lortzeko eta gure inpaktua behar bezala kudeatzeko.

Berotegi-efektua eragiten duten gure gas-isuriak kalkulatzeko, GHG protocol delakoaren arabera deskribatutako metodologia erabiltzen dugu, eta hornitzaileek eurek emandako konbertsio-faktoreak lehenesten ditugu; halakorik ezean, Energiaren Nazioarteko Agentziak (IEA) eta Trantsizio Ekologikoko Ministerioak (MITECO) argitaratutakoei ematen diegu lehentasuna.

Oinarritzko urte gisa 2018 ekitaldia erabiltzen dugu, urte natural gisa. 1. irismena (erregai fosilen bidezko zuzeneko emisioak) eta 2. irismena (elektrizitatea erostetik eratorritako zeharkako emisioak) lortu ditugu. Gainera, 3. irismena zati bat biltzen hasi gara, negozio-bidaiei ondoriozko aztarnaren datua lortuta (gure bidaia-agentziek emandako datua).

	Irismena1	Irismena 2	Irismena 3	Konpentsatutakoa	Guztira Tn CO ₂
2018	378,6	12.781,9	0		13.160,5
2019	423,7	11.786,1	0		12.209,8
2020	634,7	8.844,6	283,6	-27,9	9.735,0



Azpimarratu behar da jatorri berriztagarriaren bermea duen energia erosi ez arren, elektrizitate-hornitzaileek mix energetiko hobea dutela hainbat instalaziotan, eta, ondorioz, % 26,03 murriztu dela 2018. urtearekin alderatuta.

Era berean, 2020an, Bizkaiko Undabaso basoa leheneratzeko jarduten duen Lurgaiak Gobernu Kanpoko Erakundearekin lankidetzan aritu gara. GKEa, zuhaitzak landatuz konpentsatzeaz gain, basoa bere berezko egoerara itzultzen ere saiatzen da. Horren barruan, bertako biodibertsitatea hobetzea dago, adibidez, anfibioentzako putzuak kudeatuz.

5.2 EKONOMIA ZIRKULARRA ETA HONDAKINEN PREBENTZIO ETA KUDEAKETA

8 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Jasangarritasunak, estrategia gisa, BATZ Groupeko ekonomia zirkularra bultzatzea dakar. Ekoizpen-eredu horren arabera, material birjinen sarrera murriztu behar dugu, hondakinen ekoizpena minimizatu eta produktuen bizi-zikloa hedatu.

Urteak dira lehengaien aurrezteak bultzatzen dela, gure produktuen diseinu-fasetik bertatik. **Baliabideen erabilera murrizten duten teknologiak implementatzen ditugu**, hala nola WIT injekzioa edo MuCell®, eta birziklatutako material plastikoak txertatzen ditugu gure prozesuetan, gure plastikoa berrerabiltzeko gai izanik. Erositako plastiko guztiaren % 2,79 hondakin gisa kudeatu genuen 2020an.

Erabiltzen ditugun material metalikoak berez % 100 birziklagarriak dira; behin gure instalazioetan hondakin gisa hartzen direnean, kudeatzaileengana bideratzen dira, eta haiek berriz urtzen eta merkaturatzen dituzte.

2020an, **konpostaje**-programarekin jarraitu genuen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, eta, beraz, vending zerbitzuaren janari-hondarren, edalontzien eta paletinen ondoriozko frakzio organikoa konposta fabrikatzera bideratzen da.


Azken aukera zabortegiko hondakina izatea izango da, eta berrerabiltzeko edo birziklatzeko edozein bide lehenetsiko da. Hondakin ez-arriskutsu (HEA) metaliko edo plastikorik zabortegira ez botatzea lortu dugu, eta gainerako HEAen % 1 baino ez da zabortegietara eramaten.

HONDAKINEN KUDEAKETA

Hainbat urtez **hondakinen sorrera minimizatzeko politikak** ezarri ondoren, ikus daiteke kudeatutako guztizko bolumena 3.632,4 t murriztu dela hondakin ez-arriskutsuetan eta 207,7 t hondakin arriskutsuetan.

Datu horiek adierazten dute 2018. urtearekin alderatuta % 50,65 gutxiagotu dela, eta arriskugarritasun-ezaugarriak dituzten hondakinen arteko ratioa gainerakoekiko proportzionala dela.

Kudeatutako hondakinak Tn



Hileroko txostena egin beharra dakarren adierazle bat ezarri da instalazio bakoitzerako, zuzeneko eskulaneke langileek egindako lanorduek sortutako hondakin arriskutsuaren kopuruan oinarriturik. Datu hori baliotsua da hondakin-tipologia hori modu fidagarriagoan kuantifikatzeko; izan ere, hondakinok lantegietan sortzen dira nagusiki. Datu horien arabera, ratioa nabarmen handitu dugu azken bi urteei dagokionez, 2018. urteari dagokionez % 275,85eko baliora iritsita.


Aurreko urteotan bezala, bolumen handieneko hondakin arriskutsuak ezaugarri oliotsuak dituztenak dira; ondoren, inpregnatutako solidoak, lantegiko garbiketaren ondoriozko garbiketa-ur zikinak; eta, azkenik, produktu kimikoak eduki dituzten ontziak. Hondakin ez-arriskutsu gehienak metalikoak dira, guztizkoaren % 71.




5.3 BALIABIDEEN ERABILERA JASANGARRIA

UR-KONTSUMOA

9 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula



Ur-kontsumoa m³



BATZen, hiru prozesu arduratzen dira uraren kontsumoaz: ekoizpen-eremuetako hozte-zirkuituetatik eratorria, norberaren garbiketarako eta iturrietako kontsumoa, eta garbiketara bideratua.

Egun, **instalazio bakoitzerako hozte-sistematik eraginkorrenak** dauzkagu ezarrita, hozkailu adibatikoen esperientzia batetik bestera eramanda. Gainera, garbiketarako erabiltzen den **uraren kontsumoa murrizteko ekintzak** txertatu ziren, besteak beste: sakagailuak eta itxiera automatikoa dituzten txorrotak; emaria murrizteko aireztagailuak, presio-sentsazioari eutsita; komunetako tangak deskarga bikoitzarekin; zirkuituen berrikuspena, ihesak bilatzeko; etab.

Ur-kontsumoa, guztira, 22.444 m³-koa izan zen 2020an, hau da, 2018an baino % 14,73 txikiagoa. Ur-hornidura udal-sareek ematen dute oso-osorik, eta, hainbat instalaziotan hurbil egon arren, ez da akuifero naturalik biltzen. Horrela, uraren kudeaketa arduratsuaren alde egiten da. Azpimarragarria da gure Mexikoko instalazioa ura berrerabiltzen hasi zela 2020an. Sendotu nahi dugun esperientzia da hori.

Gure kolektiboak ur-proportzio handia kontsumitzen duela jakitun, 2020an kontsumo-adierazle bat ezarri genuen langile-kopuruaren aldean. Emaizten arabera, 2018. urtearekin alderatuta, % 10,85eko murrizketa izan dugu, oso datu esanguratsua, eta joera hori 2017. urteaz gozotik errepikatzen ari da.

LEHENGAIEN KONTSUMOA


10 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

BATZen, urteak daramatzagu jasangarritasuna gure produktuen portfolioan txertatzen. Horiei balio erantsia ematen diegu, ingurumen-inpaktu hobea duten fabrikatutzat jotzen baititugu, eta beren bizi-zikloan ingurunerako hain kaltegarriak ez direla bermatzen du. Lehengaien horniduratik hasi, ekoizpen, merkaturatze eta garraiotik igaro, eta hondakinen azken kudeaketaraino.

Ildo horretatik, BATZen, **lehengaien kontsumoen murrizketa aurrerago fabrikatuko diren produktuen kontzeptualizazio- eta diseinu-fasetik bertatik hasten da**. Horrela, hainbat diseinu-kontzeptu aplikatzen ditugu, osagaiak arintzea lortzeko, eta gure prozesuak hobetzen jarraitzeko aukerak aztertzen eta ezartzen jarraitzen dugu. Hala, eta txosten honetan aurreko atal batean azaldu bezala, eraginkortasun operazionalerako gure industria-ereduak baliabideak optimizatzeko aukera ematen digu, eta, beraz, lehengai gutxiago kontsumitzen dugu. Hori lortzen da prozesu guztietan ekoizpen-eraginkortasuna handitzean, denboran, espazioan, hondakinetan, inbentarioan eta akatsetan etengabeko hobekuntza dakarren Kaizen kudeaketa-filosofia ezarrita.


Ahaleginak bateratzeak lehengaien kontsumoa murriztea ekarri du: 8.754 t material metaliko, 9.150 t material plastiko eta 7.752 t gainerako material esanguratsu; hau da, oinarritzko urtearekin (2018) alderatuta, kontsumoa % 53koa, % 68koa eta % 23koa da, hurrenez hurren.

Lehengaien kontsumoa



Era berean, **biltzeko eta enbalatzeko materialak hobetzeko lanean** jarraitu genuen. Itzultzeko kaxak ezartzeak eta enbalajeak estandarizatzeko ingurumen-inpaktua minimizatzea lortu dute. Datuek adierazten dutenez, 2019ko igoera orokorraren ondoren, 2020ko portaera askoz hobea izan da, pandemiako zenbait alditan salgaien mugimenduak izandako murrizketaren eraginez, noski.

2018. urtearekin alderatuta, paperezko edo kartoizko biltzeko materialak % 47 murriztu ditugu, zurezkoak % 32 eta plastikozkoak % 77.



ENERGIA-KONTSUMOAK


11 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Ikusi energia-jarduna

5.4 ALDAKETA KLIMATIKOA

12 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Mugikortasun jasangarriagoaren aldeko konpromisoa gure egunerokotasunean islatzen da. Arintzean eta aerodinamika aktiboan ditugun berrikuntzetatik abiatuta, eta ekoizpen-prozesuetatik igarota, ibilgailuaren eraginkortasuna dugu xede, eta, beraz, energia-kontsumo txikiagoa eta isurien murrizketa, horrek hirietako airearen kalitatea hobetu eta ibilgailuaren CO2 emisioen ondoriozko berotegi-efektua minimizatzen baitu.



Dena den, klima-alaketaren ondorioak nabariak dira jada. Tenperaturak pixkanaka gora egiten duen arren, aldi berean negu hotzagoak eta muturreko beroko egunak dituzten udak dauzkagu. Horregatik, energia gehiago erabili beharra dugu, gure langileen konfort termikoari eusteko, erregai fosilak edo elektrizitatea erabiliz, eta horrek gure karbono-azterna handitzea dakar.

Nahiz eta mugikortasun jasangarriko planetan sakontzeko beharra identifikatuta izan, 2020an pandemiagatik bizi izandako egoera ezohikoa izan zenez, ezin izan genion modu egituratuan heldu ekimen horri. Hala ere, osasun-krisi horrek berak mugikortasun-murrizketak eta espazio itxietan inor ez egotea ekarri ditu; horren eta BATZek urrutiko lanerako hartutako neurrien ondorioz, gure emisioak murriztu egin dira, hala nola lantokirako joan-etorriak eta bidaiak.

5.5 BIODIBERTSITATEAREN BABESA

13 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

BATZ Groupen ekoizpen-instalazioak industrialdeetan daude, Gorbeia (Bizkaia) parke naturaletik gertukoak izan ezik, Eusko Jaurlaritzak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu baitu eta Europako Natura 2000 Sarean sartuta baitago. Bere balio naturalistikoek harago, eremu hori eta bere ingurunea erreferentzia dira, eta karga sinboliko eta kultural handia dute euskal herritar guztientzat, oro har, eta inguruko biztanleentzat, bereziki.

Zehazki, Igorreko instalazioa Mustela nutreola (bisoi europarra) espezie babestuarentzako interes bereziko eremuan dago, haren habitata Arratia ibaiaren ibaiertzean eta ibaiadarretan hedatzen baita. Hori dela eta, baldintza espezifikoak ezarri dira bai ugaztuna bai bere habitata babesteko, inguruko udalerrietan ugari dagoen Cortaderia selloana espeziearen eta bere gisako espezie inbaditzaileen aurkako plana osaturik.

Lehen esan bezala, Lurgaia Fundazioarekin garaturiko lankidetzak lanerako bide bat ireki digu, hala bertako fauna eta flora babesteko nola berotegi-efektuko gasen isuriak konpentsatzeko.

- Zapigarren urtez jarraian, AZTERTU ingurumen-hezkuntzako programarekin elkarlanean aritu ginen, IBAIALDE bertsioan, Arratiako gure kokalekuetatik gertuko ibaien egoera monitorizatzeko:

Aztertu-Ibaialde programa

- 2020an, Sanfilippo Sindromearen elkartera (Bizkaia) eta Centro de Estudios y de Promoción Social Cáritas A.C.-ra (Mexiko) bideratutako tapoi solidarioen bilketa-kanpainari eutsi genion, minbiziak jota dauden gaixoei laguntzeko. Ekimen honek helburu bikoitza du; izan ere, gaixotasun horien ikerketa bultzatzeaz eta agerian jartzeaz gain, hondakin plastikoen bereizketa zuzena sustatzea lortzen dugu.
- 2020ko Gabonetan, 1.500 m² baso oparitu genizkien gure bezeroei. Quercus programarekin eginiko lankidetzak horri esker, 27,9 t CO₂ isuri ziren. Programa hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbako (Bizkaia) baso autoktonoak leheneratzeko eta kontserbatzeko Lurgaia Fundazioak bultzatzen duen ekimenaren barruan dago.

**Ekimen hauek bat datoz Nazio
Batuen Garapen Iraukorrako
Helburuekin**



6. GIZARTEARI ETA LANGILEEI BURUZKO GAIAK

BATZen lan egiten dugun emakume eta gizonak erabat konprometituta gaude gure proiektuaren epe luzerako arrakasta lortzeko.

Horrenbestez, egunez egun lan egiten dugu helburu komun hori erdiesteko eta gure langileen dibertsitatea, aukera berdintasuna, prestakuntza eta garapena seguru eta osasuntsua bermatzeko. Azken batean, pertsonengatik eta pertsonentzako pentsatutako leku bat.

PERTSONEN KUDEAKETA EREDUA

BATZ Groupen pertsonak kudeatzeko ereduak pertsonak erakundean sartzen diren unetik irteten diren arte bistaratzen ditu, etengabeko garapeneko ikuspegi batekin. **Employee Life Cycle** ereduaz ari gara (aurrerantzean, ELC).

ELC ereduak gure ESTRATEGIAREN inguruan egituratua dago, pertsonen lorpenetara bideratutako pertsonen kudeaketarako edozein estrategiaren inguruan.

Hortik abiatuta, pertsonen kudeaketa-sistema ezberdinak identifikatu eta garatzen dira, eta langileei euren ibilbide profesional osoan zehar laguntza emateko gidalerroak zehazten dira



Erakarri eta aukeratu

Pertsonak kudeatzeko oinarrietako bat BATZen. Baina "hautaketa" baino, talentua erakartzeko prozesua dela esatea gustatzen zaigu, gaitasunen araberrako gure kudeaketa-ereduan oinarritua. Enpresak aurrera egiteko beharrezkoak diren profilak identifikatzea edo, zehatzago esanda, gaitasun teknikoak eta zeharkakoak identifikatzea izango da hautaketa horren euskarria. Bilaketa enpresaren barruan eta kanpoan egin daiteke.

BATZek hainbat komunikazio-bide identifikatu eta kudeatzen ditu, eta horietara jotzen du talentua erakartzeko:

- Unibertsitate edo lanbide-eskolekin era egituratuan harremanak izanez. (Elkarlan-taula Gizartea atalean.)
- Ikerketa-zentro edo ezagutza handia duten erakundeekin harremanak izanez. (Elkarlan-taula Gizartea atalean.)
- Lan-foroetan geure burua aurkeztuz. (Elkarlan-taula Gizartea atalean.)
- Gure lantegietan hezkuntza-zentroen bisitak izanez.
- Aukera profesionalen ikusgarritasuna sustatuz online tresnen bidez, hala nola hautaketa-atariak, gure webgunea, eta ser sozialak (Linkedin, MONDRAGON People eta ezagutza ardatz duten beste batzuk). (BATZ Group komunikazio-politikan zehazturiko komunikazio-mapa).

Pertsona hori lanean hasten denean eta enpresarekin lehen aldiz topo egiten duenean, haren itxaropenek aurreneko erantzuna jasotzen dute. Lehenengo topaketa hori hasierako harrera egitean gertatzen da. Beharrezkoa da proiektua aurkezte, pertsonari harrera ona egitea, BATZ zer den erakustea, azaltzea zer balioekin funtzionatzen duen, pertsonak nola kudeatzen dituen, enpresan egunerokotasunean nola mugi daitekeen (administrazio-alderdiak), bere lanpostua aurkezte (eta harekin lotutako Laneko Arriskuen Prebentzioko gaiak), eta egunero lanean izango dituen harreman-sare nagusiak erakustea.

2020an, Igorreko plantan **harrera-plan berria ezartzeko proiektu pilotua gauzatu da**. 2019an hasi zen plan hori garatzen, eta aurreikusita dago 2021ean gainerako plantetara hedatzea. Plan horrek ordeztuko ditu horietako bakoitzean gaur egun ezarritako planak. Harrera hori pertsonalki egiten da, eta BATZen intranet korporatiboan ere badago. Hala, sartu berri den pertsonak eduki osoa kontsultatu ahal izango du, behar duen guztietan.

Bestalde, hautaketak atzerriratzea badakar, enpresak nazioarteko mugikortasun-politika dauka, zeinetan atzerriratze-baldintzak, helmugako tokiko estaldura-alderdiak, aberriaratzaren kudeaketa eta abar jasotzen diren.

Garapena

Pertsona hori BATZen dinamikaren parte izaten hasten denean, bere garapenaz arduratzen gara. Ahalegina eta lana aitortzen eta sustatzen ditugu, barne-sustapeneko politiken, aukera-berdintasunaren eta lanbideen eredu bat aplikatzearen bidez. Gainera, urteko garapen-elkarriketen bidez, pertsonekin lan egiten da garapen profesionalerako planak zehazteko. Informazio gehiago, atal honetako 5. puntuan (Prestakuntza).

Nabarmentzekoa da 2020ko ekitaldian bete den mugarrria, Taldearen mailan gaitasunen araberako kudeaketa-eredua finkatuz. 2020ko ekitaldi honetan, **gaitasunen araberako ebaluazio-prozesua modu globalean abiarazi da**, PKS izeneko gure barneko kudeaketa-aplikazioaren bidez. Beraz, MOI taldeko kolektibo osoak parte hartu duen lehen ekitaldia izan da, eta **ebaluazioen itxiera-emaitzak % 80 ingurukoak izan dira**. Prozesuaren helburua BATZen dauden pertsonentzako banakako garapen-planak identifikatzea izan da. Prestakuntza Planaren “elikadura-iturri” nagusia izan nahi du.

Konpromisoa eta atxikipena

Edozein proiektuk arrakasta izan dezan, funtsezkoa da pertsona enpresaren barruan balioetsita sentitzea, aintzat hartua, alegia. BATZen, ahalegina eta lana aitortzen eta sustatzen dira, besteak beste **barne-sustapeneko politiken, aukera-berdintasunaren eta lanbideen eredu baten aplikazioaren bidez**, jarraian zehazten den bezala:

- Karrera-kurbak identifikatzen dira (bai mugikortasun horizontalean bai bertikalean).
- Gizarte-onuren sistema egituratuak finkatzen dira.
- Kontziliazioa ahalbidetzeko politikak zehazten dira.
- Antolamendu-ereduak hobetzen dira, pertsonen gaitasunak garatzen eta pertsona/postua egokitzen laguntzeko.
- Barne-komunikazioko prozesuak lantzen dira, pertsonen konpromisoa lortzeko oso garrantzitsuak.
- Pertsonen kudeaketa egiten da, generoen arteko berdintasuna sustatuta.

Politika guztiak eta horien deskribapena 3. puntuan (Politikak)

Erakundetik ateratzea

Erakundean pertsonen harrera ona egitea bezala, BATZen oso garrantzitsutzat jotzen dugu haien irteeraren kudeaketa. Joateko arrazoiak edozein izanda ere, badakigu pertsona bakoitzak gure proiektuaren hazkundeari prestasuna, denbora eta ahalegina eskaini dizkiola, eta bidea erraztu behar diogu.

- Irteera erretiroaren bidetik izan daiteke (horrek eragin dezake erretiro-plan zehatzak egotea eta egoera horretan izaten laguntzeko administrazio-prozesuen kudeaketa).
- Outplacement prozesuak martxan jarritik lagundutako irteera ere izan daiteke.
- Irteera orok ordezkapena eskatzen du. Beraz, erakundeak ordezkapena egiteko beharrezko planak abiaraziko ditu.

BATZen hainbat ekitaldi eta ospakizun egiten ditugu kide guztien lan-harremanak bultzatzeko, hala nola ate irekien jardunaldiak, langileentzako errekonozimenduak, gabonetako afaria, Emakumearen eta Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizuna, besteak beste.



Gure erantzuna pandemiaren aurrean

COVID-19aren agerpena erronka bat izan zen gure profesionalak kudeatzeko orduan. Otsailaren 9tik, Txinako Gobernuak herrialde horretako enpresak ixtea erabaki zuenetik (bertan ginen) hurrengo hilabeteetan munduko gainerako herrialdeetan jardura ia erabat gelditu zen arte, gure profesionalen ongizatea eta osasuna ziurtatzera jo genuen, aldi berean erlojuaren aurka lan-mekanismoak ezarri eta hori bermatuko duen teknologia ahalbidetu ahal izateko lan eginez.

Hala, krisia koordinatzeko kabinete bat ezarri zen, eta handik, egoerak aurrera egin ahala, neurri egokiak hartu ziren, bai eta jarduteko eta birusaren hedapena geldiarazteko protokoloak sortu ere, instalazio bakoitzarekin koordinaturik; bertan, besteak beste, honako xedapen hauek ezarri ziren: zuzeneko eskulanaren (MOD) kasuan, lan-txandak luzatzea; zeharkako eskulanean (MOI) eragin handiagoa duten lanaldi malguak eta urrutiko lanak ezartzea; lan-bidaia kentzea, eta garraioaren eta hornitzaileen sarrera-kontrol zehatza egitea. Horrela, bezeroei gutxieneko zerbitzua bermatzeaz gain, espazio murriztuetan langile asko ez egotea bermatuko zen.



6.1 ENPLEGUA

Eskaria kolapsatzearen, hornidura-katean izandako etenaldiaren eta, batez ere, langileen segurtasunaren ondorioz ekoizpenean izandako geldialdiak eragina izan zuten aurretiaz ukituta zegoen gure sektoreko enpleguan, mundu-mailan.

Gure kasuan, eta batez ere 2020ko lehen seihilekoan, lan-malgutasuneko neurriak aplikatu genituen, gu gauden herrialdeetako legeria bakoitzarekin bat datozenak, eta espezifikoko, lantegi bakoitzaren ekoizpen-beharrizanen arabera, bezeroentzako horniduraren jarraitutasuna bermatzeko.

14+15 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Hurrengo taulan erakusten diren datuak urtearen itxierakoak dira

	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
PLANTILAREN PROFILA																											
Langile kopurua	665	656	584	133	169	153	139	151	167	294	342	98	204	160	130	12	12	10	22	14	11	2	2	2	1.471	1.506	1.155
Kontratu mugagabea duten langileen kopurua	531	531	528	116	69	72	139	151	167	199	281	97	196	11	11	12	11	0	22	14	0	2	2	2	1.217	1.070	877
Aldi baterako kontratua duten langileen kopurua	134	125	56	17	100	81	0	0	0	95	61	1	8	149	119	0	1	10	0	0	11	0	0	0	254	436	278
Adin banaketa																											
Adina <30	61	45	25	33	27	29	17	21	14	147	160	34	39	15	14	7	9	5	4	1	1	0	0	0	308	278	122
Adinad 30-50	466	470	399	90	73	104	87	96	111	129	163	62	164	144	115	4	2	4	18	13	10	1	2	1	959	963	806
Adina >50	138	141	160	10	23	20	35	34	42	18	19	2	1	1	1	1	1	1	0	0	0	1	0	1	204	219	227
Batez besteko adina	43,57	43,60	45,00	38,42	39,21	40,1	42	42	43	31	37	36	37	35	36	31	32	34	35	38	38	43,5	44	45	37,7	38,9	39,64
Kategoriak																											
Goi-zuzendarien kopurua	16	19	16	7	9	9	7	7	8	9	11	9	9	11	11	1	1	1	1	1	0	1	0	0	51	59	54
Erdi-mailako kargudunen kopurua	47	34	39	3	9	2	6	6	6	11	19	9	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	67	68	56
Gainerako MOI kopurua (Zeharkako eskulana)	267	263	266	38	55	59	30	34	36	18	102	33	82	76	67	6	7	6	9	7	7	1	2	2	451	546	476
MOD kopurua (Zuzeneko eskulana)	335	340	263	85	96	83	96	104	117	256	210	47	113	73	52	5	4	3	12	6	4	0	0	0	902	833	569

16 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
KONTRATU MOTA																											
Langile kopurua	665	656	584	133	169	153	139	151	167	294	342	98	204	160	130	12	12	10	22	14	11	2	2	2	1.471	1.506	1.155
Kontratu mugagabea duten langileen kopurua	531	531	528	116	69	72	139	151	167	199	281	97	196	11	11	12	11	0	22	14	0	2	2	2	1.217	1.070	877
Aldi baterako kontratua duten langileen kopurua	134	125	56	17	100	81	0	0	0	95	61	1	8	149	119	0	1	10	0	0	11	0	0	0	254	436	278

17 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Enplegua sortzea eta errotazioa																											
Enplegu sorrera garbia	-29	-9	-72	10	16	-16	23	25	16	135	48	-244	-17	-44	-30	0	0	0	0	-8	-3	2	0	0	124	28	-349
Batez besteko errotazioaren % planta bakoitzeko			0,029			0,83			1,2%			1,68			0,018			0,035			0			0			32,6%
Langileek erakundearen irauten duten denboraren batez besteko kopurua (urtetan)	9,5	12	14,6	6	7	8	8,3	9	8	2,58	2,1	3,5	3	5,11	5,75	3,9	3,48	3,59	3,9	5,2	4,5	1,55	10	13,5	4,8	6,7	7,68

18+19 zb - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula.

BATZ Groupek bertan lan egiten duten pertsonen ongizate ekonomikoaren, aniztasunaren eta garapenaren aldeko apustua egiten du. Horregatik, bere langileen ordainsarien gardentasuna eta sexuagatiko soldaten arloko diskriminaziorik eza bermatzen ditu, emakumeen eta gizonen arteko ordainketa-berdintasuna ezarriz, barne-sustapeneko, hautaketako eta garapeneko politketan oinarrituta, bai eta lanbideen eredu baten aplikazioa ere, lanbideak, horien deskribapena eta ordainsari-maila barne hartzen dituen esparrua.

2020an, soldata-arrakala % 4,69koa izan zen, eta oinarritzko soldataren ratioaren eta emakumeen gizonekin alderatuta duten ordainsariaren arabera kalkulatu izan da.

Politika guztiak eta horien deskribapena II puntuan (Politikak)

	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Brecha salarial																											
Emakumeen oinarritzko soldataren eta ordainsariaren ratioa gizonen aldean			-3,94%			22%			-29,21%			31,76%			41%			73%			83%			N/A			4,69%

(E-G) / M x100% | G Gizonetzkoen ordu bakoitzeko ordainketa-tasaren batez bestekoa | E Emakumetzkoen ordu bakoitzeko ordainketa-tasaren batez bestekoa

20 zb - Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

BATZ Groupek ez du lan-deskonexioaren arloko neurri zehatzik; dena den, 2020an, alor horretan eragin zen, informazio-pilulen bidez, COVID-19aren ondorioz urrutitik lan egin zuten pertsonen ehunekoa handia izan baitzen.

21 zb - Empleados con discapacidad

BATZek ezgaitasuna duten pertsonen lanari heltzea laguntzen die kontratazio zuzenaren bitartez edo enplegu-guneen zerbitzuak eta produktuak azpikontratatu.

	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Desgaitasuna duten langileen kopurua	0	0	0	0	1	0	2	2	2	0	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2	5	3

6.2 LANAREN ANTOLAKUNTZA

22 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Gure pertsonen kontziliazio pertsonala eta profesionala sustatzen lan egiten dugu, haurdunaldietatik, amatasun- eta aitatasun-bajetatik eta edoskitze-baimenetatik harago. Horretarako, BATZen ordutegi-malgutasuna dugu sartzeko, irteteko eta bazkaltzeko, aparteko orduak kudeatzeko, jaiegunetan lana egiteagatik plusa, udako lanaldi murriztua, besteak beste, aparteko orduen politikan, hitzarmen kolektiboetan eta barne-araudietan araututa eta jasota daudela, tokian tokiko. Era berean, lana eta familiaren kontziliazio politika nabarmendu behar da, baimenen, eszedentzien edo lanaldi-murrizketen arloko mekanismoak biltzen dituen dokumentua.

	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Lanaren antolakuntza																											
Absentismo tasa	n/a	6,51	8,94	n/a	4,86	3,64	n/a	4,89	5,19	n/a	1,32	3,62	n/a	0,05	3,76	n/a	3,30	0,01	n/a	0,02	0,00	n/a	0,00	0,00	n/a	2,6	3,1
Absentismo orduak	78465,50	74.194,25	93.593,67	n/a	13.858,00	24.055,50	n/a	11.535,00	14.470,00	n/a	8.884,44	11.289,00	n/a	23.373,00	22.142,00	n/a	69,00	137,50	n/a	745,50	0,00	n/a	0,00	0,00	n/a	132.659	165.688
Guraso-baimen bat baliatzen duten gizonen kopurua	19	8	24	0	0	0	3	4	6	3	8	5	6	9	4	1	0	1	1	1	0	0	0	0	33	30	40
Amatasun-zerbitzu bat baliatzen duten emakumeen kopurua	2	6	5	3	5	3	0	0	0	7	4	2	3	3	1	1	1	1	0	0	0	0	0	0	16	19	12

6.3 LANEKO OSASUN ETA SEGURTASUNA

23 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

BATZ osatzen dugun pertsona guztien zereginak eta jarduerak egitea errazten eta ziurtatzen dugu ingurune seguru batean, prebentzioko, segurtasuneko eta ergonomiako baldintza guztiak betetzen direla kontrolatuz, eta gure jardura behar bezala gauzatzeko beharrezko prestakuntza eta metodologia eskainiz. Ildo horretatik, **laneko segurtasun- eta osasun-arloko baliabideak kudeatzeko sistema ziurtatua dugu ezarrita**, eta **laneko prebentzio eta arriskuen plana** ere bai. Era berean, laneko osasun- eta segurtasun-politika dugu, ekoizpen-instalazio bakoitzera egokitzen dena.

Prebentzio-, segurtasun- eta osasun-arloko informazio-, kontsulta- eta partaidetza-ekintzak garatzen ditugu. Ekintza horiek **laneko segurtasun- eta osasun-batzordeen (LSOB) eta lantegietako prebentzio-ordezkarien bidez** antolatzen dira, eta, legeak hala eskatzen ez duen kasuetan, kanpoko prebentzio-zerbitzuen bidez.

Beren arduren artean daude prebentzio-jarduerak planifikatzea eta lehendik ez dauden arriskuak sortzen dituzten edo daudenak handitzen dituzten teknologia txertatzea dakarten ekipamenduak, instalazioak edo prozesuak aukeratzea. Langileen segurtasun eta osasunean ondorio nabarmenak izan ditzakeen beste edozein ekintzaren berri emango du LSOBk.

	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNA																											
Baja eragin duten istripuen kopurua Emakumeak	n/a	6	0	n/a	0	0	n/a	2	0	n/a	0	0	n/a	1	0	n/a	0	0	n/a	0	0	n/a	0,00	0,00	n/a	9,00	0,00
Baja eragin duten istripuen kopurua Gizonak	n/a	27	22	n/a	0	1	16	25	14	n/a	0	0	n/a	2	4	n/a	0	0	n/a	0	0	n/a	0,00	0,00	n/a	54,00	41,00
Baja eragin duten istripuen kopurua Guztira	n/a	33	22	n/a	0	1	16	25	14	n/a	0	0	n/a	3	4	n/a	0	0	n/a	0	0	n/a	0,00	0,00	n/a	61,00	41,00
Bajarik gabeko istripuen kopurua Emakumeak	n/a	0	0	n/a	15	29	0	0	0	n/a	0	6	n/a	0	0	n/a	0	0	n/a	0	0	n/a	0,00	0,00	n/a	15,00	35,00
Bajarik gabeko istripuen kopurua Gizonak	n/a	3	4	n/a	13	14	7	10	12	n/a	0	7	n/a	0	2	n/a	0	0	n/a	0	0	n/a	0,00	0,00	n/a	26,00	39,00
Bajarik gabeko istripuen kopurua Guztira	n/a	3	4	n/a	28	43	7	10	12	n/a	0	13	n/a	0	2	n/a	0	0	n/a	0	0	n/a	0,00	0,00	n/a	41,00	74,00
Inzidente kopurua	n/a	69	48	n/a	0	0	2	4	1	n/a	30	12	n/a	3	2	n/a	0	0	n/a	0	0	n/a	0,00	0,00	n/a	106,00	63,00
Larritasun indizea:	0,84	0,74	0,69	0,00	0,00	0,58	1,43	1,44	1,05	0,00	0,00	0,00	0,01	1,67	0,07	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,28	0,48	0,33
Inzidentzia-indizea			42,41			579,91			83,83			0,00			0,03			0,00			0,00			0,00			88,27
Maiztasun indizea	19,97	17,24	28,14	180,00	145,80	142,94	59,00	75,80	52,91	1,14	0,00	0,00	5,46	6,51	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	33,2	30,7	32,0

Adierazleen kalkulua

Larritasun indizea (galdutako lanaldi kopurua/lanean emandako ordu kopurua)*10E3 | Inzidentzia indizea = (baja eragin duten lanaldiko istripuen kopurua / langileen kopurua) x 100.000

Maiztasun indizea (istripu kopurua/lanean emandako ordu kopurua)*10E6

Urte normala izan ez bazen ere, 2020an laneko segurtasun eta osasunari buruzko prestakuntza espezifikoko 2.139 ordu jaso zituzten BATZeko profesionalek, eta nabarmentzekoa da lanpostuko arriskuekin lotutako prestakuntza-orduen kopurua % 48 handitu zela. Era berean, egun, gure langileen % 63,1ek baino gehiagok larrialdietan jarduteko gaitasuna dute.

Geure mediku- eta erizaintza-zerbitzua dugu langileen artean, eta akordioak ditugu mutualitateekin eta mediku-zerbitzuetako beste erakunde batzuekin gure instalazio guztietan. Gainera, aldizka, osasun-kanpainak eta -jarduerak sustatzen ditugu bizi-aztura osasungarriak bultzatzeko.



Gaixotasun kronikoak hautemateko kanpaina, osasunaren astea, txertaketa-kanpainak (Influentza, TD, hepatitis, ugalketa-osasuna, lehen sorospenak), elikadurari buruzko saioak, tabakismoaren aurkako kanpaina, osasun-lasterketak...

Gure erantzuna pandemiaren aurrean

- Zalantzarik gabe, gure langileen laneko osasuna eta segurtasuna kudeatzea izan zen 2020an gehien landuriko alderdietako bat, eta baliabide gehien eskatu zituen, bizi izan genuen osasun-alertako egoeraren ondorioz. Kudeaketa horrek Osalanen (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) aintzatespena jaso zuen, COVID kasuak artatzeko orduan gure mediku- eta prebentzio-zerbitzuak bikaintasunez jarduteagatik, eta, ondorioz, BATZen ezarritako neurrien eraginkortasunagatik.

- Murrizketak gorabehera, lan-kontuengatik nazioarteko bidaiak egin behar izan zituzten langileek International SOSen zerbitzuak izan zituzten. 2019tik gurekin ari den erakunde hori liderra da laguntza medikoan, nazioarteko osasun-arretan eta bidaietako segurtasun-zerbitzuetan. Horrez gain, eta kolektibo horrentzat, PCR probak ezarri ziren bidaiatu eta itzuli arretik, probak egiteko derrigortasuna indarrean sartu baino askoz lehenago.



6.4 GIZARTE- HARREMANAK

24 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Elkarrizketa sozialaren antolaketa, langileei informazioa emateko eta kontsulta egiteko eta haiekin negoziatzeko prozedurak barne, lurralde bakoitzeko legeriaren arabera zehazten da. Guretzat, lehentasunezkoak dira sindikatu- eta lan-legeria errespetatzea, diskriminaziorik ezaren politikak, jokabide-kodearen betetzea, eta laneko segurtasuna eta osasuna. 2020an, langileen % 100 eskubide horiek garatzen dituzten hitzarmen kolektiboek estaltzen zuten.

BATZ enpresaren barne-komunikaziorako kanalak, helburuak eta oinarrizko edukiak, bai eta BATZen barne-komunikaziorako prozesuen dinamizazioa eta eraginkortasuna erraztu beharko duten igorleak ere, irismen globalekoak dira enpresa eta filial guztientzat. Aurrekoa gorabehera, eta Taldea osatzen duten enpresen kultura-, antolaketa- edota sozietate-desberdintasunak direla eta, dagozkien organoetan komunikazio-bide gehigarriak edo toki-aplikazioko egokitzapen jakin batzuk onartzea planteatu ahal izango dute, betiere BATZ Groupen politika globalean zehaztutako ildoak errespetatuz gero.

KOMUNIKAZIO-KANALAK

Kooperatibaren berezko kanalak

Batzar orokorra
Batzar informatiboak
Konsejiloak

Eremu instituzionala

Intranet korporatiboa
Newsletter-a
Eremu komunitarioa ikus-entzunezko baliabideak
BatzZmobile plataforma (BATZ Zamudio)
Iragarki-tabloia
Informazio kioskoa (BATZ Mexicana)
Posta elektronikoa

Kudeaketa eremua eta exekutiboa

Kolaboratzaileen batzarra
Arduradunarekin batzarrak
Harrera plana
Gogobetetze inkestak
Arduradun-kolaboratzaileen despatxoak
Jardunaren ebaluazioa
Kaizen eguneroko batzarra
Kudeaketa-sistemetako aldizkako komiteak

6.5 PRESTAKUNTZA

25 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Automobilgintzaren ingurune dinamikoan, gure profesionalen trebakuntza funtsezko lan-ardatza da, eta merkatuan gertatzen diren benetako beharretara eta aldaketetara egokitzeko aukera ematen digu. Horretarako, **garatu beharreko arloak identifikatzeko sistema batean oinarritzen gara** (prestakuntza- eta garapen-planak), **Gaitasunen araberrako Kudeaketa Ereduaren barruan**. Eredu horrek barne hartzen ditu lanpostuen deskribapenak, pertsonen gaitasunen araberrako ebaluazioa eta ondorengo garapena. Garatu beharreko arloen identifikazioak jardunaren ebaluazioa du oinarri: arduradunak bere taldea ebaluatu eta haren garapena bideratzen du.

Gaitasunen araberrako kudeaketa-eredua finkatzeari dagokionez, 2020 ekitaldian abiatu zen, oro har, talde-mailako gaitasunen araberrako ebaluazio-prozesua, PKS izeneko gure barneko kudeaketa-aplikazioaren bidez. Beraz, ZeE taldeko kolektibo osoak parte hartu duen lehen ekitaldia izan zen, eta ebaluazioen amaierako emaitzak % 80 ingurukoak izan ziren. 2021 ekitaldiari begira, helburuak izango dira prestakuntza-planak ebaluazio-prozesuan identifikatutako ekintzen araberrako definitzea, aurreko amaierako emaitzak sendotzea eta hobetzea, eta ebaluazio-prozesuari laguntzea, bai eta gure barne-aplikazioa gehiago garatzea ere.

“**Liderraren rola BATZen**” proiektuari dagokionez, ildo horretan hainbat urtez lan egin ondoren, 2020an BATZ Groupeko manager guztien iritzia eta feedbacka bildu ziren, barne-inkesta baten bidez. Haren helburua zen jakitea lidergo-taldeak zer pertzepzio zuen rol horren barruan zehazturiko ekintzei dagokionez, hala nola balizko hobekuntza-eremuak antzematea. Azterketa horretatik ateratako ondorio nagusiak honela laburbil daitezke: gehiengoaren ustetan, rolaren barruan zehazturiko ekimenekin aurrera jarraitu behar da, gure taldeen komunikazioa, kohesioa eta kudeaketa indartzeko eta hobetzeko bide gisa; landu beharreko edukiri eta bilerak bideratzeko zein garatzeko moduari dagokionez, laguntza handiagoa behar da; eta lidergo-taldearen eta gainerako kolaboratzaileen pertzepzioa biltzea garrantzitsua da. Ondorio horiek oinarri, 2021 ekitaldian bilera horietan landu beharreko edukia zehatz-mehatz adieraziko da, eta kolaboratzaileen feedbacka bilduko, asebetetzeari eta konpromisoari buruzko inkestaren bidez, urte honetan bertan.

BATZ-EN, GURE LANGILE GUZTIEI ERAGITEN DIETEN PRESTAKUNTZA-EKINTZAK SUSTATZEN DIRA, HIZKUNTZETAN, GAITASUN KORPORATIBO ETA TEKNIKOETAN, ETA KUDEAKETA-SISTEMETAN, BATZUK NABARMENTZEARREN.

Prestakuntza

	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Langileek jasotako ingurumenari buruzko barne-prestakuntza orduetan	98,0	15,0	3,75	520,0	0,0	0,0	150,0	66,5	0,0	730,0	84,0	30,0	8,0	4,0	6,0	16,0	16,0	16,0	4,0	3,0	2,0	0,0	0,0	0,0	1.526	189	58
Langileek jasotako ingurumenari buruzko kanpo-prestakuntza orduetan	18,0	26,0	49,5	0,0	152,0	400,0	80,0	0,0	0,0	414,0	96,0	24,0	20,0	12,0	16,0	0,0	0,0	0,0	4,0	24,0	16,0	0,0	0,0	0,0	536	310	506
Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko prestakuntza: lanpostuetako arriskuak orduetan	84,0	121,0	796,5	1.040,0	304,0	368,0	150,0	126,0	0,0	84,0	67,0	51,0	8,0	302,0	152,0	8,0	8,0	8,0	8,0	7,0	8,0	0,0	0,0	0,0	1.382	935	1.384
Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko prestakuntza: manutentzio baliabideak (garabiak, plataformak, eskorgak, altuerako lanak) orduetan	299,0	509,0	304,0	176,0	74,0	249,0	80,0	345,0	0,0	80,0	103,0	26,0	8,0	120,0	144,0	16,0	16,0	16,0	8,0	7,0	16,0	0,0	0,0	0,0	667	1.174	755
Bestelako prestakuntza orduetan	9.039,0	4.751,4	3.800,2	240,0	520,0	390,0	90,0	803,5	272,0	102,0	279,0	149,0	8,0	0,0	4,0	24,0	24,0	24,0	24,0	38,5	24,0	0,0	0,0	0,0	9.527	6.416	4.663
Langileek jasotako prestakuntza, guztira orduetan	9.538,0	5.422,4	4.954,0	1.976,0	1.050,0	1.407,0	550,0	1.341,0	272,0	1.410,0	629,0	280,0	52,0	438,0	322,0	66,0	64,0	64,0	48,0	79,5	66,0	0,0	0,0	0,0	13.640	9.024	7.365

6.6 DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

26 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

BATZ Groupek hainbat lan-ildo garatu ditu enplegarritasunaren, integrazioaren eta gaitasun desberdinak dituzten kolektiboei laguntzearen inguruan.

Alde batetik, eta lehen adierazi bezala, BATZen desgaitasunen bat duten pertsonen enplegua lortzeko erraztasunak ematen dizkiegu, bai zuzeneko kontratazioaren bidez bai enplegu-zentro berezietan produktuak eta zerbitzuak azpikontratatu. Bestetik, lankidetzan dihardugu gizarteratzea eta lan-merkatuan txertatzea sustatzeko elkarteekin eta ekimenekin, txosten honen Gizartea atalean ageri den bezala.

6.7 BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA

27 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Kooperatiba gisa sortu zen proiektu hau, egun, mundu osoan hedatuta dago, eta multikulturala da. **Mundu-mailako taldea, osatzen dugun pertsonen dibertsitatea barne hartzen duena.** Aurrekoarekin bat etorrira, eta gure jokabide-kodean zehaztuta dagoen bezala, espresuki hitzemandu dugu ez dugula inor diskriminatuko arraza, erlijio, sexu, adin, nazionalitate, sexu-orientazio, genero-identitate, egoera zibil, desgaitasunagatik edo diskriminazio-iturri izan daitezkeen beste edozein arrazoiengatik.

Horrela, **ahalegina eta lana aitortzen eta sustatzen ditugu, barne-sustapeneko politiken, hautaketa- eta garapen-politiken, lana eta familia kontziliatzeko politiken eta lanbideen eredu baten aplikazioaren bidez.** Oso barneratuta dugu sustapena pertsonen merezimenduan, gaitasunean eta banakako jardunean oinarritzen dela.

Era berean, dugu, non BATZen gerta daitezkeen sexu-jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen kasuak prebenitzeko eta, hala badagokio, haiek artatzeko prozedurak eta baliabideak jasotzen diren.

Mexikoko BATZen, gainera, Estatuko Gobernuarekin estu-estu lan egiten jarraitzen dugu, 2019an eman ziguten Enpresa barne-hartzailearen aitortzenari eutsita.

Berdintasun plana

Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko indarreko lege esparrua betez, 2013an, BATZ S. Koop-en kanpo-diagnostiko bat


egin genuen gai horri buruz, oso emaitza onak lortuz. Diagnostikoaren ondorioz, plan bat egin genuen ekintza zehatzekin

eta berdintasun batzorde tako arlo bat eratu genuen. Batzordea negozioezberdinetako partaideek osatzen dute, lau urteko indarraldia du eta kideak urtean behin biltzen dira. 2020. urte amaieran, batzorde hori partzialki berritu zen.

Berdintasun-planeko ekintzak hiru ardatzetan banatzen dira: balioak, pertsonen kudeaketa eta komunikazioa. Matrizera mugaturiko plana da, baina azpimarratzekoa da BATZek legeetan ezarritako printzipioak betetzen dituela, kudeaketa-plan aurreratua eta lanbideen mapa dituelako, eta berdintasuna (mota orotakoa) talde guztiek oso barneraturik duten gaia delako, ez kuota-kontua.



	IGORRE			TXEKIA			ZAMUDIO			MEXICO			KUNSHAN			GUANGZHOU			CHENGDU			AEB			TOTALA		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
GENERO-ANIZTASUNA ENPLEGATUETAN																											
Langile kopurua	665	656	584	133	169	153	139	151	167	294	342	98	204	160	130	12	12	10	22	14	11	2	2	2	1471	1506	1155
Kontratua duten emakumeen kopurua	103	110	87	90	79	81	19	22	22	120	118	26	60	49	40	6	6	5	9	6	5	0	0	0	407	390	266
Kontratua duten emakumeen %	15,49	16,77	14,90	67,67	46,75	52,94	13,67	14,57	13,17	40,82	34,50	26,00	29,41	30,63	30,77	50,00	50,00	50,00	40,91	42,86	45,45	0,00	0,00	0,00	27,67	25,90	23,03
Goi-zuzendaritzako postuetan lan-kontratua duten pertsonen kopurua	9	19	16	7	9	9	7	7	8	8	11	9	9	11	11	0	0	0	0	0	0	1	0	0	41	57	53
Goi-zuzendaritzako postuetan lan-kontratua duten emakumeen kopurua	4	3	3	3	5	5	3	3	3	1	1	2	4	3	3	0	0	0	0	0	0	0	0	0	15	15	16
Goi-zuzendaritzako postuetan lan-kontratua duten emakumeen %	44	16	19,0	43	56	56	43	43	37	13	9	22	44	27	27	0	0	0	0	0	0	0	0	0	37	26	30



7. GIZA ESKUBIDEAK

28 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

Gure Jokabide kodea

BATZ Groupek jokabide-kode bat du 2017tik. Kode hori BATZ osatzen dugun pertsonen jokabide arduratsua arautzeko prozedura

eta arau sorta baino askoz gehiago da. Jokabide-kodearen helburua da lehendik BATZ Groupen zegoen enpresa-kultura bat finkatzea.

Kodearen betetze-maila lankidetzan, konfiantzan eta errespetuan oinarritzen da, baita BATZ taldea ordezkatzeko duten pertsonen eta hirugarrenen arteko komunikazioen konfidentzialtasunean.

Aplikazio eremua

Jokabide Kodea BATZ talde osoan bete beharrekoa da, maila orokorrean, alde batera utzi gabe hemen deskribaturiko gutxieneko eta nahitaez bete beharreko baldintzak sendo ditzaketen tokiko legeriei zor zaien errespetua.

Nori aplikatzen zaio Kodea

BATZ taldeko pertsona guztiei, barne hartuta BATZ S. Koop-en kontrolpeko Sozietateak.

Kodearen zabalkundea

Jokabide Kode honen berri emango zaie BATZ Groupera heldu berri diren Pertsona guztiei, horretarako ezarritako Harrera Planaren bitartez. Jokabide Kodea onartzean dagoeneko Langileak direnei intranet bidez helaraziko zaie, edo berariaz prestatutako dokumentazioa banatuko zaie. Hirugarrenei edo interes-taldeei dagokienez, webgunearen edo berariazko argitalpenen bidez helaraziko zaie Kodea. BATZ Groupen Kontrolpeko Sozietate bakoitzeko Gerentziaren erantzukizuna izango da Jokabide Kodearen zabalkuntza benetan egin dela ziurtatzea.

Betetze Batzordea

BATZ Groupeko Betetze Batzordeak, Betetze Zuzendaritza (Compliance Officer) mahaiburu dela, eskumena du betetzefuntzioaren berezko arlo guztietan.

Betetze Batzordeak sortzen eta proposatzen du Jokabide Kode honen edukia, bai eta BATZ taldearen Compliance Program osatzen duten Protokolo guztiak ere; behin BATZ S. Koop-eko Errektore kontseiluak onartuta, Pertsona guztiek bete behar dituzte.

Urraketa eta Kanal Etikoari jakinarazpena

Jokabide Kode hau ez betetzeak Compliance Program urratzea dakar, eta lan- edo sozietate-mailako zigorrak eragin ditzake, dagozkion zigor administratibo edo penalak alaera utzi gabe.

Jokabide Kodea errazago betetzeko, Kanal Etiko bat dago, konfidentziala eta barne-mailakoa, zeinaren bidez:

- Jokabide Kodearen interpretazioari edo aplikazio praktikoari buruzko balizko zalantzak kudeatzen diren.
- Kode honen balizko arau-haustea jakinarazten diren.

BATZ S. Koop-eko Pertsona orok Jokabide Kode honen edo berau garatzen duten Protokoloen Hobekuntza Arlo bat edo Arauhaute bat ezagutuz gero, zuzenean jakinarazi beharko dio Betetze Zuzendaritzari, Kanal Etikoaren bidez.

Jakinarazpen-egileari Kanal Etikoari jakinarazitakoarekin lotutakoaren aurrerapenen berri emango zaio.

2020an ez da jaso kode hau betetzeari aplikatzen zaion jakinarazpenik.





29 zb -Informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen legearen betetze-trazabilitatea taula

BATZ OSATZEN DUGUN PERTSONA GUZTIEN PORTAERA GIDATZEN DUTEN PRINTZIBIOAK

Nahitaezko lana agintzeko debekua eta kontratazio-politika

BATZ Groupek ez du onartzen, ez zuzenean ez zeharka, Pertsonen borondatea mehatxuen, zigorren, pribazioen, esklabotza edo erdiesklabotza erako formulen edo Giza Eskubideen beste edozein urraketa bidez behartuta lorturiko lana. BATZ Groupeko kontratazio-politika bat dator indarrean den legeriarekin, eta barne hartzen du, haren arabera, gizarte-babeserako eskubidea dakarren guztia, lan egonkor eta kalitatezkoarekin konpromisoa adierazten duen guztia eta bizi-maila duina asetzeko soldata politika ezarriko duen guztia.

BATZ Groupek Pertsonen itxaropenak eta beharrak artatzen ditu, haien bizitza pribatuaren eta profesionalaren artean oreka egokia lortu nahian, hartzen diren neurriek erakundearen lehiakortasuna ez kaltetzeko moduan eta arreta berezia eskainita mendeko pertsonen zaintzari dagozkion pertsonen betebeharrei.

Berdintasuna eta lan-giro adeitsua

BATZ Groupen helburua da lan-giroan konfiantza eta elkarrekiko begirunea nagusitzea; horretarako, Pertsona guztiek sustatuko dituzten harremanak, maila profesional guztietan, oinarrituko dira elkarrekiko begirunean, zintzotasunean, adeitasunean, konfiantzan eta talde-lanaren baitako laguntzan eta ahaleginean, lan-giro adeitsua sortuta lankideen, zuzendarien eta hauen mende dauden pertsonen artean, lan-giro positiboa lortzeko.

Gure hautaketa-politika zorrotza eta objektiboa da, eta hautagaien meritu akademiko, pertsonal eta profesionalak besterik ez dugu kontuan hartzen, bai eta BATZ Groupen beharrak ere.

BATZ Groupen prestakuntza-programek aukera-berdintasuna eta lan-ibilbidea garatzeko berdintasuna bermatzen dute, eta aktiboki laguntzen dute Taldearen xedeak lortzen. Era berean, lan-esparruan gora egitea Pertsonen merituaren, gaitasunean eta norbere lanean oinarritzen da.

